



Oñati letrarik letra

Orain hasten dugun sail berri honetan Oñatirekin zerikusiren bat daukaten pertsonak, lekuak, gaiak edo kontuak azaldu nahi ditugu, baina modu berezi batez, hau da, alfabetuaren arabera sailkatuta. Pentsa dezakezuenez, Oñatiri buruzko saski-naski bitxi samarra gerta dakiguke; ea interesgarri eta irakurgarria ateratzen zaigun. Gaurkoan alfabetoaren lehenengo bi letrekin ekingo diogu lanari.



LTUBEtarrek Oñatitik Ameriketaruntz jo zutenean ere ez zen gure artean giro izango. Urte gutxiaren buruan Zubillagako Zugastui baseritik bost mutil gazte, zeukaten apurra berten behera utzita, itsasoz beste aldera joateko, hemengo egoera lantza izan behar, derrigor. Gure lehenengo gerra zibila (1833-39) orduantxe amaitua zen

eta, karlistada luze eta odoltsu haren ondoren, etsipena eta gosetea zen nagusi bazterretan. Ameriketa aldean, berriz, independentzia estreinatua berria zuten errepublika askotan esku-lanaren preminan aurkitzen ziren. Inñaki Zumaldekin kontatzen digunaren arabera, Santiago Altube abiatu omen zen lehendabizi Montevideoara 1840an; laster, anaiaren arrimora, Migel, Felix, Pedro eta Fernando (gerora Bernardo deituko diotena) ere, batzuk lehenago besteak gerotxoago, Buenos Aires inguruan kokatu ziren.

Pedrok, ordea, Argentinan bost bat urte pasatu eta gero, Californiarako bidea hartu zuen 1850ean, urreak liluratuta milaka ameslarik paraje haiek arakutzen zihardutenean. Baina gure zubillagarrak zera pentsatu zuen: hainbeste jendeak jan beharra ere edukiko zuela eta, urrea zegoen tokian diru-faltarik izango ez zenez, okelatarako ganaduak haztea negozio polita bilaka zitekeela. Horrelaxe bihurtu zen Pedro Altube oñatiarra Estatu Batuetako euskaldunen artean unain eta artzainik ospetsuenetakoa. Gizon iharra



eta luzea zelako **Palo Alto** ezizena ezarri zioten; bere anaia Bernardorekin batera izugarriko "rantxoak" eraiki zituen Californian lehenengo eta Nevadako estatuan geroago; Nevada, Elko-tik gora dagoen Independece Valley izeneko paraje zabalean **Spanish Ranch** famatua eduki zuten; negute gogor batean dena galdu eta berriz ere negozioa altxatzea lortu zuten; 1907an Altubetarrok ganadutzari utzi eta gutzia saldu zutenean, 20.000 ardi, 20.000 ganadu, 2.000 zaldi eta 162.000 Ha. lur zeukan beren rantxoak.

Palo Alto San Franciscon hil zen 1905ean, 78 urte zituela, eta bertan ehortzi zuten. Bernardori Berkeley-n iritsi zitzaion bere azken ordua. Argentinako Altubetarrek, ostera, Oñatira itzuli ziren eta, besteak beste, Oñatiko Kontearen Zubillagako ola zaharrean **Moyua, Elorza y Altube** deituriko burdina-fabrika modernoa sortu zuten 1884an, XX. mendean **Zubillagako Forjak** bezala eza-gutu genuena.




AKETXE kaleaz bi hitz. Kale barria eta Patruze kalea lotzen dituen kantoï oker eta xume honek nolako xarma duen bere apaltasunean! Etxe-osteak, horma-sailak,

Orbeaneke leihogotikoa, Antixeneko parkeko arbolen kerizpea, lurreko harri zaharrak, **tarrapatatan, tarrapatatan...**

Alabaina, azkenaldi honetan inguruan egin diren obrekin nortasun apur bat galdu duela-koan nago. Nire ustez, arreta gehiago jarri behar-ko genuke gure hiriguneko txoko polit honi oraindik darion graziari eusteko. Zoruko adokinei, daudenak mantenduz, txukunketa bat ondo etorriko litzaieke. Eta ez dut **Kantonoste** izenaren aurka nagoenik esango, hori ere jatorra eta petoa baita; baina **Baketxe** zerrenda ofizialek kanpora gertatu denez gero, belaunaldi gazteek aurki ahaztu egingo dutela iruditzen zait. Denok hain bakezale bihurtu garen sasoi honetan ezin dugu holako izen ponpoxo eta esanguratsua berreskuratu?.

JERARDO ELORTZA

Araba Etorbidea, 4
Tfnoa. 79 01 32
ARRASATE
9,00 - 13,00
16,00 - 20,00



Olakua, 14
Tfnoa. 71 60 00
OÑATI

16,00 - 20,00

- MAILA GUZTIAK
- HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ

**HURBILDU ZAITEZ
GURE BULEGOETARA!**

ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA

Oñati letrarik letra (II)

Gezurra dirudien arren, ia hamar urte pasatu dira aldizkari honetantxe lehenengo "Oñati letrarik letra" izeneko sailari ekin genioenetik. Orduko hura osatu guran-edo, beste alfabeto txantxikuar batekin hasiko gara, hilero erabateko askatasunaz gure herriko pertsona, leku edo konturen bat aitzakiatzat hartu eta A-tik Z-rainoko gai oñatiarrak lantzeko asmotan.

ARAOTZ ospetsu bihurtzen ari zaigu azkenaldi honetan. Arrazoi desberdinengatik pertsona asko hurreratzen da Oñatiko auzo horretara: espeleologiazale eta puentinglariak Jaturabe ingurura; eskaladan ari direnak Sandailiko hormetara; mendizale eta ibiltariak Atxulo, Araozta, Ugastegi, Andarto eta abarretara; ehiztariak Usbakotxenera; eta egunpasa dabiltzanak elizondoko tabernara, gorpuz-animen premiak asetzera.

Bada, ordea, jendea erakartzeko beste arrazoi bitxi bat ere: "lopezaletasuna" alegia. Agerreko Lope famatuaren araoztartasuna oraindik inork frogatu ez badu ere, ia mundu guztiak gauza ziurtzat jotzen du marañoien buruzagi bortitzaren sortetxea auzo honetan kokatzen dela. Horregatik, sarritan ikus daiteke hainbat turista despistatu Loperen jaiotetxearen bila: batean Agerren, hurrengoan Lopenean, edota Txopenean.

Alabaina, gutxi dastatzen dituzte bere osotasunean Araotzek gordetzen dituen edertasunak. Izan ere, gorago aipatu diren gauza horietaz gain, zenbat elementu ikusgarri aurki daitekeen auzo zabal hau osatzen duten zortzi auzune politetan: tumuloak, zubiak, presak, kanalak, errotrak, karobiak, *errekak* edo labaderoak, antzinako bideak, ermitak, gurutzeak, perratokia, base-ri giroko eraikuntza interesgarriak eta parrokia zoragarria, besteak beste.

BIDAURRETA hitza entzutearekin batera, mojak, komentua, hamairu arrautzako dozena, Vera Cruz kofradia, hospederia eta beste hainbat gauza datorkigu gogora. Baina, sarri askotan gertatzen den legez, izena izana baino lehenagokoa da. Edo beste modu batera esanda, Bidaurreta bazen XVI. gizaldian komentua jaso aurretik ere. Eta ez orain mojak bizi diren paraje horretan, apur bat gorago baino. Olako dorrea Bidaurreta deitzen zen XV. mendearen hasieran eta Olabarrieta alderagoko beste toki batzuk ere bai, dirudienez.

Edonola ere, Lazarragatarrek Oñatiko kondearekin izandako haserrealdi batean euren ehorzleku gisa jasoarazi zuten elizakomentuak aberastasun miresgarriak ditu bere baitan. Elizan dauden erretaula bikainak eta gainontzeko arte-elementu aipagarriak ikusteko aukera mundu guztiak dauka. Baina komentu barruko dotoretasun simple eta soilaz gozatzeko zoririk pertsona gutxiri eskaintzen zaio. Klausurero, logela, jangela eta beste elementu garrantzitsu batzuei buruz ari naiz. Monjen eguneroko bizimoduan oztoporik jarri gabe, ez al dago noizean behin klausurako edertasunok herri-terrei erakusteko modurik?

JERARDO ELORTZA

M. AGVIRREVRRETA OKINDEGIA

Berezano auzoa, 21
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54
OÑATI


Begoña
Mertzeria

Atzeko Kalea, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI

Begoña
Edertasun Zentrua

- Solariuma
- Pedikurak
- Depilazioak
- Aurpegirako eta gorputzerako tratamenduak

Atzeko Kalea, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI



Oñati letrarik letra

DONEPETRI Oñatin? Harrigarri samarra badirudi ere, bada gure herrian antzeko lekuizena. Jakina da Iparraldean eta Nafarroan ditugula tankera horretako toponimoak: **Donapaleu, Donostiri, Donibane, Donamartiri, Doneztebe, Donamaria**, etab. Gipuzkoan **Donostia** da ezagunena, duda barik.

Probintzia honetako Mendebaldean eta Bizkai-Arabetan, ordea, gutxitan topatzen da era honetako izenik.

Latinezko *dominetik* omen dator forma hau, hots, *jaun* esanahia dauka eta santuen izenei ezartzen zitzaien aurretik: adibidez, San Juan-en kasuan *Domine Joannes/Domne ioanne/Doneioane/Donibane* edo antzeko bilakaeraren bitartez egungo **Donibane Lohizune** edo **Donibane Garazi** herri-izenak gauzatu dira. Oñatiko Donepetri, beraz, aintzinako San Pedro bat izango genuke.

Egia esateko, toponimoek aldaketa nabarmenak edukitzen dituzte sarritan, eta esku artean duguna adibide bikaina da hori erakusteko: parrokiako liburu batean **Donepetri** agiri baldin bada 1740 aldera, Koldo Eleizalde **Dunapetri** moduan jaso zuen 1920 inguruan, Luis M^a Mujikak **Donapetri** eta **Doñapetri** irakurri zuen 1839 eta 1951ko dokumentuetan eta Amaia Erostarbek aurten bertan **Gonapetri** entzun du uribaritarrek esanda. Dena den, Otadui baserriko Euxebi Igartuak adierazitakoaren arabera, eurek **Donapetri** ere erabiltzen omen dute oraindik eta paraje hori non dagoen ere argitu digu: Uribarri auzoan, Belar azpian, Okabixotik hurbil; orain pinuz beteta egon arren, zelaia izan ei zen lehen; ermita aztarnarik ez omen da gelditu, baina kontuan hartzeko lekuizena izan daitekela iruditzen zait.



ETXE-AUNDI jatetxe gisa ezagutzen dugu azken urteotan. Aurretik baserria izan genuen mendeetan zehar. Erdi Aroan jaso zuten Lazarraga familiakoek eta hauxe izan zuten euren jatorrizko sortetxea. Kaleko jauregia, plazakoa, erosi zute-nean, San Pedroko etxe hau garrantzia galduz joan zen eta azkenerako maizterrei alokatutako baserri bihurtu. Etxearen tankerak ere aldakuntza sakonak izango zituen seguruenik, eta guk ezagutu dugun baserriak XVII-XVIII. mende aldera hartuko zuen egitura hori. Auzoa bera **Lazarraga** deitu zen denbora askoan, nahiz eta gerora **San Pedro** (ermitagatik) edo **Torrauzo** (zubi ondoko Garibai torreatatik) nagusitu diren.

Etxe-aundiko Lazarragatarrek zeresan asko eman zuten Oñatin, Araban eta beste zenbait lekutan historian zehar. Baiña gaurkoan oinetxe honekin zerikusia duten bi kanta soilik gogoratuko ditugu. Bata oso zaharra da, XIV-XV. mendekoa, eta Oñati eta Leintzen artean izandako burruken lekukotzat geratu zaigu. Urruxola-garaiko mendatean 1400. urte inguruan gertatu zen gudu batean oñatiarren buruzagiak **Pedro Garibai** eta **Joan Ibañez Elazarraga** lehen-gusuak izan ziren (bata Torrekoa eta bestea Etxe-aundikoa, seguraski); leiztarrek, aldiz, Galartzako jaunaren semea zeukaten aintzindari moduan. Nahiz eta gatazkan jasan zituen zaurien ondorioz Garibai gaztea hil, orduko kronikek diotenez, garaipen borobila lortu zuten oñatiarrek. Euskarazko kanta bat ere ondu zuten burruka gogor haren oroitzapenetan:

*Gaitza zenduan leiztarrok Urruxolako lekaioa,
Sendo zenduan odolori biurtu jatzu gatzatua.*

Hau da, Urruxola gaineko lekaixo edo gerra-irrintzia zorigaiztokoa suertatu zitzaizela leiztarrei, hauetariko askok heriotza aurkitu zutelako egun hartako guduan.

Bigarren kanta, berriz, bost mende t'erdi beranduago asmatu zuen Lazarragatarren ondorengoen azkenengo errenteroak: **Ixak Etxezarretak**, alegia. Etxandin orain dela hamabost bat urtera arte bizi izan zen nekazari umoretsu hark Oñatiko berbenetan hainbat denboran modan izan genuen abesti famatu bat utzi zigun. Hau ere, kasualidadez, Urruxolari buruzko aipamen batez hasten da:

*Araotz eta Urrusulan ibilli gaittuk ondo,
baiña betik dispuesto San Pedrorra fateko...*

JERARDO ELORTZA



ETXE-AUNDI

Oñati letrarik letra (II)

DURU izan da menderik mende oñatiarron larre-lekurik estimatuenetakoa. Antzinatik, XV. gizaldira orduko, agertzen zaigu aipatua paper zaharretan. Orduan Gebaratarren eraginpean zeuden lur-sail haiek eta Oñatiko Jaun horien patronatuko zen San Migel elizak zeukan berauetatik ateratzen ziren etekin ez gozatzeko eskubidea. Horrela zioen, behintzat, 1444 urtean **Gebarako Pero Belez** eta **Uribarriko** auzotarren arteko gorabeherak konpontzeko moldatu zen dokumentu batek. Dena den, herritarrei ere uzten omen zieten hango ondasunak aprobetxatzen.

Garai hartan badirudi orain baino baso gehiagok janzten zutela Aloñaziarreko malda hori. Artean Arantzazu sortu gabe zegoenez, batez ere uribarritarrek ustiatzen zituzten hango arbolak —eskortak eta txabolak egiteko edota su-egurretarako—, nahiz eta gutxi-asko beste auzo batzuetakoak ere horrelako gaiez baliatu. Dena den, ganaduak ere sartzen zituzten hango saroi eta zelaietan; ardiak ez ezik, behiak, zaldiak eta beste abere-mota batzuk ere bai. Horixe salatzen digu Duruko **Unamendi** izeneko parajeak, hots, unai edo behizainen mendia zela, hain zuzen. Ez da ahaztu behar, bestalde, Arantzazuko **Zapiarbe** baserriari **Unaiñena** deitzen ziotela XIX. mendean.

Bada, gainera, beste gauzatxo aipagarri bat ere: XV. mendeko lur-sailok **korta** batean kokaturik zeuden. Neurri jakineko esparru borobil eta handi samarrak izan ohi ziren kortak. Oñatiko herriaren muga barruan makina bat kortaren aztarnak geratu zaizkigu, Arantzazu aldeko baso-mendietan bereziki. Hasiera batean ezin omen zen etxerik jaso kortetan, baina gerora jauntxoek lortu zuten halako lurretan baserri berriak eraikitzea. Garibai auzoko **Duruaran** baserria ere korta batean egin zela badakigu. Eta ezinbestez datorkigu galdera burura: **Korta** eta **Duru** berbek antzeko esangura ote dute?



Arg.: Agustín Goenaga

ETXEA, normala denez, kultura guztietan izan da elementu garrantzitsua, eta herri, auzo edo baserriak izendatzerakoan sarritan erabili ohi dena. Inguruko hizkuntzetara bakarrik mugatuta hor ditugu, adibidez, **Casanova**, **Casasola**, **Maiso-nave**, **Casacuberta**, **Mulhouse** edo **Nordhausen**. Eta leku-izenen bidez askotan pertsona-izen eta deituetara ere pasatu dira. Erreparatu besterik ez dugu, banaka batzuk soilik esatearren, zenbat **Etxabe**, **Etxaide**, **Etxagibel**, **Etxarri**, **Etxezarreta**, **Andikoetxea**, **Barrenetxea**, **Garaikoetxea** edota **Larretxea** daukagun euskal abizenen artean.

Oñatiko deitura eta toponimoetan ere erruz aurki ditza-kegu **etxe** elementua duten terminoak. Larregi ez luza-tzeagatik, gure herriko baserri-izen historikoetan azaltzen zaizkigunak bakarrik arakotuko ditugu. Hauetariko erai-kuntza batzuk galdu dira dagoeneko. Elementu hori ber-baren hasieran edo amaieran ager daiteke: **Etxaingua** (Olabarrieta) / **Barrenetxe** (Urruxola); eraikuntzaren tamaina adierazten du batzuetan: **Etxandi** (Torreauzo) / **Etxatxo** (Berezaio eta Santxolopetegi); nolako itxura edo materiala duen: **Etxezuri** (Zañartu) / **Arretxe** (Murgia eta Zubillaga); jaso zuenaren jatorria inoiz: **Gipuzetxe** edo **Kipuzetxe** (Berezaio).

Baserri hartakoez zuten lanbidea zehazten dutenak ere ez dira gutxi: **Baiñuetxe** (Urruxola) / **Dolaretxe** (Garibai) / **Eskola-etxe** (Olabarrieta eta Zubillaga) / **Paterretxe** edo **Faretxe** (Larraña, Olabarrieta, Uribarri eta Zubillaga) / **Salutadore-etxe** (Olabarrieta); bere garrantzia ere bai batzuetan: **Etxenausi** (Zañartu); eraikinaren kokapena erakusten da beste batzuetan: **Goikoetxe** (Uribarri) / **Goixenetxe** (Lezesarri) / **Etxeoste** (Araotz); baina askogatik gehien errepikatzen den izena **Etxebarri** dugu, hau da, lehengo baserri baten aldamenean beste berri bat jaso dela adierazten duena: Arantzazu (2), Araotz (2), Berezaio, Garagalza, Goribar, Larraña (2), Olabarrieta, Santxolopetegi, Uribarri, Urruxola Zañartu eta Zubillagan (4) daude edo zeuden **Etxebarri** izeneko baserriak.

Azkenerako, beste **etxe** bitxi batzuk laga ditugu. Kasu batzuetan ez da erraza euren esanahia asmatzea: **Auzo-etxe** (Larraña) / **Baketxe** (Zubillaga) / **Eperretxe** (Lezesarri) / **Konbenientzia-etxe** (Olabarrieta) / **Matietxe** (Goribar) / edota **Musuretxe** (Olabarrieta).

JERARDO ELORTZA

VICTOR FREIRE e HIJOS

Igeltseritza

• Berrikuntzak orokorrean • Teilatu eta fatxaden konponketak • Bilgetgia Berezaion

Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69

ELORZA

Burdindegia eta brikolajea

Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80
OÑATI



OÑATI LETRARIK LETRA

F

ELIX
adiskide-
a r i
eskaini
nahi izan
diot letra
hau. **Felix**

Ugarte zenari,

alegia. Hartarako arrazoien zerrrenda luze samarra aterako litzaidake, baina ondorengo hauek bakarrik azpimarratuko ditut: Oñati ezagutzen eta ezagutarazten egin zituen ahaleginengatik; gure herriko makina bat bazter, zoko eta zulo miatuz egindako ibilaldi asperkaintzengatik; hainbat mendi, haran eta haitzarte aztertuz burututako ikerketa mamitsuengatik; Oñatiko liburutegi, artxibo eta paper zahar mordo arakatzeagatik; arlo eta sail desberdinetako gaiez interesatzeko erakutsi zuen jakingura asekaitezengatik; hemendik kanpora joan zenean ere, inguru honetako ikerketa eta ikasketak ez baztertzegatik.

Bere temari eta setari azkenerearte eutsi ziolako, Oñatiko **geografia, historia, geologia, etnografia, toponimia, kirola** eta beste zenbait jakingai ikasteko, askotan ezinbestekoa zaigu Felixen lanetara jotzea. Berarekin dugun zorra nolabait berdintzeko, lan horiek batu, berrargitaratu, irakurri eta erabiltzea da modurik onena, dudarik gabe. Horixe gura zuen berak, hain zuzen.

G

ORIBAR

lekuize-
na poli-
ki-poli-
ki ahaz-
tu egin-
go zaigu.

Berreskuratze-
zoko ezer egiten ez

badugu, behintzat. Punturarte baserria ezezik, auzoa ere bazen Goribar. Oraindik ere horrela da ofizialki, baina **Casablanca** edo **Otadui** toponimo berriagoek eremua "ohostu" egin diote. Duela gutxi bota dute hainbeste mende iraun duen **Goribar-zaharra** maiorazko-baserria, Garaineko lantegia zabalteko. **Goribar-goiti** geratzen da gasolindegia baino goratxoago, nahiko egoera kaskarrean; baserri honek ere badu garrantzia, Oñatin izan dugun euskal idazle klasiko inportanteenaren sortetxea delako, bertan jaio eta bizi izan baitzen oñatieraz bi liburu idatzi zituen **Manuel Umerez Goribargoit** (1757-1818) abadea.

Zer esan nahi ote du **Goribar** hitzak? Dokumentu zaharretara jo izan ez bagenu, ez genukeen behingoa asma-tuko berba honen etimologia. Zorionez, Erdi Arotik hasita agiri ugari samar heldu zaigu zeregin honetan lagun diezaguketanak. Batez ere Rosa



Aierbe eta Iñaki Zumalderen lanetan oinarriturik, toponimo honen historiatxo labur hau egin dezakegu: XIV. mendean **Bolibar** forma irakur daiteke 1388an oñatierrek Gebarako jaunari bidalitako protesta-gutun luze batean; hurrengo mendean (XV.ean) **Bolibar** nahiz **Boribar** aldaerak aurki ditzakegu, baina bigarrena sarriago (1475, 1477 eta 1479an); XVI.etik aurrera, aldiz, gaur egunerarte iritsi zaigun **Goribar** era nagutzen da.

Honenbestez, lekui-zen honen esannahia **bolu** + **ibar** hitzen elkarketatik argi daitetekeela pentsa dezakegu. **Boluk** latinezko *molinum* forma zaharrean dauka bere jatorria eta bizkaieraren eremuan toponimia zabala eta aberatsa utzi digu: **Bolinaga, Bolintxo, Bolueta, Bolunburu** eta

Bolibar, jakina, Markina eta Eskoriatzan, besteak beste. Araotzen **Boliño** izeneko errota eduki dugu mende honetararte. Bolibarren esan-gura, bada, errota edo errotak dituen erreka ingurua izango genuke. Goribar baserrian ez dakigu errotarik izan zenik, baina goraxeago **Olalde** izeneko egoen zen XV. mendeaz geroztik, gutxienez. Auzo berean beheratxoago dagoen **Errota-barri** XVI. mendean amaierara orduko azaltzen zaigu paperetan. Beraz, **Simon Bolibar** askatzailea dela eta, Ameriketa aldean ezagunena eta hedatuena den euskal toponimo hau (**Bolibar**) izango genuke gure **Goribar** auzoaren jatorrian. Ardura gaitetzen gal ez dadin.

JERARDO ELORTZA

Galizia
taberna

Espezialitateak:

Urdaiazpiko iberikoa
Urdaiazpiko jabugo
Sanchez Romero y
Carvajal.
Bokadiloak
Pintxoak
Plater konbinatuak

Zumalakarregi, 22
Tfnoa: 78 22 08

ALONÁ
AUTOESKOLA



Juan M. Garmendia



Ramon Irizar, 3- Behea
Tfnoa: 78 24 91
OÑATI



Oñati letrarik letra (II)

F

ANDERIXIA aipatuz gero Oñatin, zubillagarrek edo berrogeita hamar urtetik gorako kaletarrek bakarrik ulertuko dizue zertaz ari zaren. Alabaina, puntura arte erreferentzia-leku ezaguna izan da herri honetako toponimian. Osinurdin aldean —Zubillaga eta Elorregi auzoen bitartean— dagoen paraje ainube samar horrek berrehunen bat urtean gorde du izen hori. Dena den, beste izen batzuk ere izan ditu erreka-zulo horrek: **Osinurdin**, jakina, eta **San Juan barrena**, adibidez.

XVIII. mendearen amaieraz gero, bazen **fanderia** bat Zubillagako leku horretan. Horrelako instalazioak burdingintzan ziharduten lantegiak izaten genituen, energia hidraulikoa erabiltzen zutenak, olek eta errotek bezalatsu. Atzerritik ekarritako teknologia berriez burdina, kobrea eta beste metal batzuk laminatu edo ijestzen ziren industria horietan. Hori dela eta, fanderiei **ijeztegi** ere deitu ohi zaie. Kanpoko aldean nahiz barruan zeuzkaten zenbait gorpil hidrauliko handi eta txiki zilindro eta ebakigailu batzuei eragiten zien, hauek burdina, kobrea eta antzeko materialak arraildu, moztu, zabaldu, luzatu eta mehetu ahal izateko.

Fanderiak ezagutzen ziren Euskal Herrian XVI. mendera orduko, baina olentzat konpetentzia zirelako nonbait, ez zuten aurrerabiderik izan XVIII. gizaldira arte. Gipuzkoan Errenterian eta Zestoako Iraetan jarri zituzten bana, eta Oñatikoa, nahiz eta oraindik gure herria ez izan erabat **gipuzkoarra**, probintzia honetako hirugarrena litzateke. Zubillagan Jose **Gomendiok** jasoarazi zuen lantegiak ez zuen luzaroen jardun fanderia moduan, XIX. mendean eta XX. ean ia etengabe industria-gune izaten jarraitu badu ere: besteak beste, kaldragintzan aritu ziren 1850 aldera, pinturagintzan XX. mendearen lehenengo erdi aldean, eta azken hamarkadetan era askotako fabrikak eraiki dira inguru horietan.

Egia esan, une honetan Fanderia Oñatiko industrialde luzearen beheko muturra besterik ez dugu: alegia, kale ondoan Ibarren hasi eta, Goribar, Garibai eta Madalena auzoak zeharkatu ondoren, Zubillagako txoko horretan bukatzen dena. Duela gutxi jatorrizko zubia bota dutelarik, XVIII. eneko presa zaharra geratzen zaigu antzinako testigu bakartzat.

G

ARIBAI auzoa majo aldatu da azkeneko hiru hamarkada hauetan. Baserriz betetako ibar nekazaria zena Oñatiko industria-gunerik trinko enetakoa bihurtu zaigu. Zenbat fabrika, tailer eta biltegi eraiki den denbora gutxiren buruan **Dolaetxe** inguritik Madalenaiko zubiraino! Baseri banaka batzuk bota dira: **Kanpixa**, **Iturriña**, **Juliangua**; beste asko lantegietatik hurrean geratu dira: **Zubiate**, **Kastillokoa**, **Matietxe**, **Argiñena**, **Unaingua**, **Begoñakua**, **Mikelezkua**, **Migelen**

Haundixa eta **Txikiña**, **Garibarren**, **Arri-xagakua**. Bere izenak ondo adierazten duen legez, **Garibagoiti** apur bar gorago kokatzen da. Bestalde, oraintsu taberna bilakatu den **Madalenaiko** eskolari ere, berez, ez zegokion izen hori, muga-muga bada ere, Garibai auzoko lurretan baitago.

Baina ibai ondoko Garibai-aldea ez ezik, bada mendialdeko beste Garibai



Garibai auzoa gaur egun. (Arg.: Udal Artxiboa).

bat ere: Artixa errekatik Landarraitzeko gainetara iristen da, aldapan gora 825 metro ingururaino igoaz, eta esku-ma aldeko muga Irabiertza errekatxoak jartzen diola. **Duruan** eta **Koixkar** biak daude paraje malkartsu horietan, hau da, sasoi bateko **Duruaren** eta **Gorospizkar Azpikua** eta **Gorospizkar Garaikua**. Hiru baserriotan bina bititza ezagutu ditugu XX. mendea aurrera samar joan arte; baina gaur egun Duruaren bakarrik gelditzen dira bi familia eta Koixkarretan bititza banatan soilik bizi dira.

Badirudi Erdi Aroan auzoen arteko mugak ez zirela gaur egunean bezain zehatzak, edota beste modu batera finakatuta zeudela. Orain beheko aldetik Garibai auzoa (Torreauzoko zubitik Santxolopeztegi zubitaino behintzat) Artixa errekat mugatzen baldin bada, antzina ere-kez bestaldetik zeuden etxe batzuk ere **garibaitarrak** el ziren. **Garibaiko torreak** eta **Garibaiko errotak**, biak ibai ertzean baina Torreauzoko aldean, horrelako zerbaitek pentsarazten digute.

San Pedroko dorretxe zahar-eder horretakoa genuen Lazarragarren leinuko Garibai familia handikia, Oñatin luzaroen hain inportantea izandakoa. Eta adar horretakoa zen **Esteban Garibai eta Zamalloa** (1533-1599) mondar-goetarra ere, gure herriarekin hainbat harreman eduki zuen historialari ospetsua.

JERARDO ELORTZA



OÑATI LETRARIK LETRA



ERNANI
famiako-
ak handi-
kiak eta
o s p e -
tsuak izan
ziren Oña-
tiko historiaren

sasoi batzuetan. XVI eta XVII. mendeetako gure herriko alkateen zerrendari begiratzen badiogu, behin eta berriro aurkituko ditugu deitura horretakoak. Familia horren garrantziaren lekukotzat San Migel parrokia-
ren aurrean dagoen etxe dotorea geratu zaigu. Berau jaso eta handik urte gutxitara, oraindik bukatzeke zegoen Oñatiko Unibertsitatearen lehenengo eskolakan ziren elizaurreko eraikuntza bikain horretan (1542-1548)

Hernanitarren beste adar batek, berriz, **Ansularas** edo **Arranoaitz** errekararen ertzean eta **Mendiko kaleaz** bestaldetik zeukan bere egoitza; San Juani eskainitako ermita eta guzti gainera, duela gutxi I. Zumaldek argitaratu zuenaren arabera. **Puerto Hernani** abizenekoak genituen hemen bizi zirenak. Etxe-ermita horietatik ez da ezer geratzen, Kultur Etxeko jardinean ikus daitekeen ermitaren ateburu letraduna izan ezik. Beste zerbaite ere egon badago, hots, etxe horretatik izena hartu zuen **Portuko zubia**, baina ez ikuste-ko moduan, kale azpian zeharo lurperatuta baizik. Oraintsu ireki berri den **Portu kalea** ere Puerto Hernanitarren oroitzapenez berreskuratu den lekuizena dugu.

Orain artekoa esan ondoren, ezin dugu utzi, inolaz ere, aipatu gabe familia honetako pertsonaiarik bitxiena: **Puerto Herna-**



niko Pedro Saez, alegia. Dokto-
re, katedradun unibertsitatean, kargudun herrian, elizgizon, idazle eta beste hainbat gauza izan zela diote kronikek. Nor-
tsaun berezi eta jenio bizikoa omen zen: kondearekin istiluak edukitzea, gartzela ezagutzea, herritik kanpora egotzia izatea eta beste auzi eta gatazka asko tokatu zitzaion gure Peru odol-
beroari. Gu, dena den, 1588an moldatu zuen **Apuntamientos** izeneko historia-liburuan Oñatiri buruz idatzi zizkigun albisteen-
gatik eta **Sandailiko kanta** eta **Mondragueko erreketaren kanta-zatia** euskaraz utzitako testuengatik zordun gatazka.



LETRAZ
hasitako
toponi-
mia ez
da, agian,
ugariena
Oñatin. Hala

ere, badugu dozenatik gora base-
rri hizki horren barruan sartzen
zaizkigunak. Behetik gora ekin-
da, Zubillagan **Ixiu**, Askasubi
eta Koixkar bitartean, joan den
mendea jasotakoa eta aspaldi-
txoan ardi-etxe bihurturik dago-
ena. Madalengan **Izurrategi**, gal-
dutako lekuizena, baina ez base-
rriak, XVIII. menderate horrela
deitzen ziren etxeek handik
aurrera **Antuena** eta **Pardios-
kua** izen berriak hartu baitzituz-
ten. Garibain **Iturriña**, duela
urte gutxi botatakoa. Zañartun
Ipentza, oraintxe eraberritzen
ari direna, eta **Ixibai**, nahiz eta
azken hau **Ezibai** moduan ager-
tu agiri zaharretan; egia esan,
Ezibaiak bi ziren: **haundixa** eta
txikiña, Artixa errekararen alde
banatan, bata Garagaltza eta bes-
tea Zañartu auzoan; Garagaltza-
koa mende honen hasieran ezku-
tatu zen eta Zañartun zaharra
bota gabe berria jaso zuten alda-
menean. Garagaltza auzoan
jarraituz, **Iraban** dugu Zuazola-
ko presatik goratxoago, **Irae-**

ban, **Irabaen** eta **Ida-
ban** gisa ere irakur dai-
tekeena aintzinako pape-
retan; Garagaltzan ber-
tan, baina Uribarri alde-
runtz hiru **Iruatz** ditugu:
aurrekoa, **erdikua** eta
garaikua, eta hiru izan
arren, izenaren jatorria
ez dator zenbakitik, **Idi-
goras** formatik baino,
eta azken hau paraje
horretan den **Idigo** mende-
ditik, seguraski; mende
honetararte bazen inguru
horretan **Idigo** deituriko
beste baserri bat ere.

Murgiako
baserriak aztertzen badi-
tugu, **Iziar-goikua**
azaltzen zaigu; **Eiziar**, **Eizagi-
rre** eta **Izagirre** formak ere
beregianatu zituen baserri-izen
honek. Larraña auzoan, berriz,
bi **Irazabal** ezagutzen ditugu
gaur egun elkarren ondoan:
haundixa eta **txikiña**; eta behe-
rago aintzinako errege-bidearen
ondoan, bidegurutze batean
Irubi(d)eta, orain dela gutxi
erre eta birreraiki dena. Olaba-
rrietan, azkenik, **Isabelena** eta
Imittola ditugu; lehenari, Oñati-
ko beste baserri askori bezala,
persona baten izena ezarri zit-
zaion, Basauri auzunean dago
kokatuta eta oraintxe guztiz era-
berritzen ari dira; bigarrena,
aldiz, badakigu XV. mendekoa
dela, gutxienez, 1477ko orde-
nantza batzuetan herri-lurretan
jasoa izan zela adierazten zaigu
eta; Oñatiko baserri altueneta-
koa den hau **Inbitola** moduan
ere agertu izan da dokumentue-
tan eta egun hutsik dago.

JERARDO ELORTZA

BELAR Irrati-Telebista S.A.

- Elektrizitate instalakuntzak • Atezain automatikoak
- Elektratresnen salmenta eta konpoketa • TV-HIFI

Olakua kalea, 1-C • Tfnoa. 78 06 57 • OÑATI

JON
ARGAZKIGINTZA

Kale-Barria, 28 behea
Tfnoa. 78 24 81 • OÑATI



Oñati letrarik letra (II)

H **LETRAK** makina bat zarata eta istilu sortu zuen gure artean duela hamarkada batzuk. Euskara batua moldatzeko eta bideratzeko prozesuari ekin zitzaionean, **h**-a banderatzat hartu genuen alde batekoek nahiz bestekoek, sarritan eztabaidak linguistikoak baino gehiago politikoak eta ideologikok bihurtu zirelarik. Orain dela 35-40 urteko kontuez ari natzazue, gure hizkuntza estandarizatzeko hainbat euskaltzalek ahalegin serioak egiten hasi zireneko garai haietaz, alegia.

Ba, burruka horren historiaren kapitulu bat Oñatin idatzi zen: 1968ko udazkenaren hasieran Arantzazun izandako Euskaltzaindiaren VII. Biltzarrean eman zituen Euskal Akademiak, beste gauza askoren artean, letra horren erabilerari buruzko lehenengo gomendio garrantzitsuak. Ez zen orduan arazoa zeharo finkatu, baina Euskaltzaindiak, euskararen batasunerako puntu garrantzitsua zelakoan, ofizialki adierazi zuen begi onez ikusiko zuela **h**-a erabiltzea euskarazko idazlanetan.

Egia esan, lehenagotik zetorren euskara bateratu, egokitu eta modernizatzeko desioa eta eskaria. Aurreko urteetako saiolak bakarrik aipatzearen, hor ditugu **Gabriel Aresti, Oskillaso, Txillardegí, Rikardo Arregi** eta beste hainbaten lanak. Ez dira ahaztu behar idazle hauek 1960az gero argitaratutako testuak eta proposamenak; ezta gai honen inguruan Baionan (1964) eta Ermuan (1968) egin zituzten bilerak. Hain zuzen ere, Arestik eskatuta heldu zion Euskaltzaindiak serioski behin betiko euskararen estandarizazioari.

Hartarako aitzakia Euskaltzaindiaren urrezko ezteiek eskaini zuten: Euskararen Akademia eratzeke erabakia 1918an Oñatin ospatutako Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuan hartua zenez, 1968an betetzen zen gertakari horren 50. urteurrena. Berau gogoratzeko biltzarra eta jaia jatorrizko eskenatokian —Oñatiko unibertsitatean— egitea pentsatua zegoen udazken aldera, baina urte hartako abuztuan, Melitón Manzanos komisarioaren hilketa zela-eta, agintari frankistek Euskal Herrian ezarri zuten salbuespen-egitera zorrotzak hankaz gora ipini zituen guztiak.

Kinka larri hari nolabaiteko irtenbidea eman guran, sasoi hartako Oñatiko alkateak, Reyes Korkostegik, biltzarra, hots handirik atera gabe, Arantzazuko komentuan antola zezatela gomendatu zien euskaltzainei. Horrelaxe egin zen 1968ko urriaren 3tik 5era. Ez dut klandestinitatean bildu zirenik esango, baina bai ezkutu antzean; ondo oroitzen naiz egun haietan Arantzazun eta Oñatin zegoen giroaz. Dena den, eta barruko zein kanpoko gorabeherak izan arren, isil samar baina irmoki jarri zen abian Oñatiko kongresu hartan euskarak **h**-arenean ez ezik beste arlo askotan zituen arazok eta gabeziak bideratu eta osatzeko prozesua.

I **KATZA** garrantzitsua izan da Oñatin gizaldietan zehar. Herri gutxik edukiko du bere mugen barruan Oñatik beste mendi-baso, eta, aldi berean, leku gutxitan egongo zen mendez mende hemen adina ola, errementeria eta sutegi. Ikatza, egur-ikatza batik bat, izan da burdingintzan erabili ohi den erregairik estimatuena. Ur-faltarik ere ez dugu sekula izan paraje hauetan, beraz osagai guztiak genituen burdinaren inguruko industria indartsua sortzeko.

Eta, sortu ere, sortu zen. Makina bat erraja, tresna eta ontzi moldatu baitzen gure herriko ola eta errementerietan: armentzako piezak eta zartaginak egin ziren bereziki denbora askoan, baina Oñatiri benetako ospea eman ziona iltzegintza izan zen. Berrehun **ultzeginek** baino gehiagok jardun zuen lanean duela ehun bat urtera arte Mendiko Kale, Zubibarrí, Lekunbarri eta beste toki askotan. Hain zuzen ere, San Pedroko lantegian **puntapaixak** fabrikatzen hasi ziren arte; hau da, iltzeak eskuz modutu beharrean, Frantziatik ekarritako makina berezi batek "**punta-parisak**" mekanikoki ekoizteari ekin zionean, ezkutatu ziren betiko gure ultze gin famatuak.

Baina ikazkintzak artean beste hamarkada batzuetan iraun zuen gure basoetan. Ingurietako fabrika eta fundizioek (Zerrajera, Patrizio, Orbegozok; Garai eta Fundizioak hemen bertan) ikatz dezente gastatu zuten 1960ra arte-edo. Bien bitartean, zenbat **txondor** sutu den Aurreko Mendi, Aloña Azpi, Araotz, Arabako Mendi edota Arantzazu aldeko malda eta zokoetan. Arreta puska batekin, edonon aurki daitezke oraindik lautadatxo borobilunskoak, garai bateko ikazkintzaren lekuko isilak.

Ikazkintzak beste ofizio batzuetakoei ere ematen zien zeregina. Lehengaia eskuratzeko, ikazkinak eurak ez ezik, **baso-mutilak** ere aritzen ziren inoiz pago-adarrak eta beste egur-zati batzuk mozten. Basoa garbitu alde, sarritan. Eta ikatza egosi eta gero, **karretero**en lana ezinbesteko izaten zen produkzio-lekutik oletara, fabriketara edota, trenbideak zabaldu zirenean, Brinkola edo Oñatiko geltokietara ikatz-zakuak eramateko. Ikusteko idi-pareak edukitzen zituzten karretero haiek. Behar ere bai, noski, gurdibide aldapatsu haietatik horrelako kargatzarrak garraiatu ahal izateko.

Lanbide gisa aspalditxo desagertu arren, noizean behin ikus daitezke txondorrek sutan. Jairen baten aitzakian edo kapritxoak pizten dituzte oraindik han-hemenka: batean Armaixon, Zerainen hurrengoan, Ataunen, Oiartzunen. Oñatin bertan ere, Araotz aldean-eta, egin izan dute ikatza azken urteotan. Gogoan hartzekoak izan genituen, 1989an Oñatin ospatu ziren **Kilometroak** janzteko, ikazkin-ohi talde txondo batek Asentzioko ermita inguruan moldatu zituen txondorrek (bi piztuta eta bat iziotu gabe, barruko egitura bistan zuela) eta ikazkin-txabola polita, bere kamaina eta guzti.



Dolaetxeko Joxe Juakin Egaña karreteroak ikatza garraiatzen Arantzazu aldean.

JERARDO ELORTZA



OÑATI LETRARIK LETRA

JULIAN Zelaia-ri asko zor diogu gerra ostean belau-naldi gazte-koak ginenok.

Saso hartan ez zegoen gaur adinako konbentziarik musika ezagutu eta entzuteko. Parrokiako organista genuen Julianek T.L. Victoria, J.S. Bach, G.F. Haendel, F. Schubert, C. Franck, A. Donostia, F. Madina eta beste hainbaten doinu eta soinuak eskaintzen zizkigun meza nagusitan, bezperetan, bederatziruennetan eta beste elizkizun askotan. Hamar, hoge eta hogei-tamar urte beranduago irratiz edo kontzertuetan zenbait musika-pasarte entzun dugunean, sarritan etorri zaigu pentsamendu hau gogora: *Kontxo, hau Julianek jotean xuan baiña!*

Organu-jole ezezik, koru-zuzendari eta konposatzaile ere bagenuen Julian Zelaia. Parrokia eta parrokiatik kanporako koru-ekitaldirik gehienetan hartu zuen parte Patrua kalean bizi zen musikariarik: Donostiako zezen-plazan ospaturiko mila ahotsen jaialdian, Aita Madinaren **Arantzazu** poemaren estreinaldian, parrokiako jai nagusi edo hileta-elizkizun dotoreetako ahots askotariko emanaldietan, eguneroko funtzio apaletan, eta abar eta abarretan. Orduko korukide eta triple izan ginenok ezin dugu ahaztu Julianen bitartez geureganatu genuen musika-kultura aberatsa.

Baina Julianen emaitza ez zen musika arlorak bakarrik mugatu. Bere familia ugaria hazi eta hezi beha-



Julian Zelaia (1916-1970)

rrak beste lanbide batzuri heltzeko premia ere erakarri zion: besteren artean, Oñatiko Unibertsitatara ekarri berria zuten eskribau eta notario zaharren protokoloen **lehenengo artxibozain** izatea tokatu zitzaion Juliani. Maristetan ikasten geniharduen mutikoen, Unibertsitateko eliza gotiko-platereskoan egiten genituen entsaioen aurretik edo ondoren, Gipuzkoako protokoloen legajo zaharrak ezagutzeko eta ukitzeko aukera paregabea izaten genuen. Beraz, hasieran aipatu dugun legez, arrazoi askorengatik gara zordun Julianekin garai bateko txantxikuarrok.



HANDIDO Izagirre ez zen oñatiarra. Hala ere, gutxik egin du frantziskotar apal honen mailako lanik gure herriaren eta hizkuntzaren onerako. Hamabost urtean ikaragarritzko pazientzia Arantzazu eta Oñati aldeko



Kandido Izagirre (1913-1967)

lexikoa hitzunen ahotik jasotzen jardun zuen; eta lan hori zeharo borobildu aurretik heriotza etorri bazitzaion ere, euskal dialektologian erudugarria den obra utzi zigun: *El vocabulario vasco de Arantzazu-Oñate y zonas colindantes*, **Aita L. Villasantek** 1970ean ASJU aldizkarian argitara eman zuena.

Urretxuko **Ipeñarieta** jauregi-baserrian jaio zen fraide honek, frantziskotarren ohizko ikasketak amaitu ondoren, Arantzazu eta Foruko estudianteei latina irakasten pasatu zuen urte mordo. Baina bere zaletasun eta grinarik biziena euskara zen, eta euskal estudioen eremuan dialektologia maite zuen bereziki: **Erronkari, Ultzama, Altsasu, Tolosa** eta **Antzuolako** berbak batu zituen, eta, aldi hartako meto-

dologiaren mugak nolakoak ziren jakinik, ederki asko batu ere.

Lanik mardulena, ordea, Oñati eta inguruetan jaso zuena izan genuen. Horretarako Arantzazu aldeko baserritarrok izan zituen lankiderik finenak: **Soroandieta, Beillotza, Errota, Gesaltza, Azpilleta, Aizkiri, Arendui, Arrikrutz, Zapiarbe, Madina** eta beste hainbat baserritako andragizonen hizkuntza-altxorra zehaztasunez bildu eta fitxetara pasatzen zuen Izagirrek. Nahiz eta Arantzazun baino maila askoz txikiagoan izan, Oñatiko kalean eta gainontzeko auzoetan, eta Leintz, Bergara eta inguruko herrietan ere aritu zen Aita Kandido bilketa-lanean. Gorago aipaturiko liburu horretan kaleratu zen hiztegi bikain hau lexiko sailerako ezezik, etnografia, toponimia, historia eta beste arlo askotarako ere oso emankorra dugu. Aita Villasanteren hitzetan *ixila eta umila, bihotz onekoa, gauzak soseguz, tajuz eta patxadaz egiten zekiena* zen gizon honi eskerrak gorde zaizkigu oñatiar eta euskaldun guztiontzat bestela betiko galduak ziratekeen aberastasun oparoak.

JERARDO ELORTZA

OKERRAK ZUZENTZEN: Moldiztegiko arazoak direla eta, joan den hilabeteko zenbakian bi akats handi samar azaldu ziren orrialde honetan: argazkiak parrokiaren aurrealdean dagoen **Hernanitarren etxea** erakutsi gura zuen, baina horren ordez **Aita Madina** kalea aurkeztu zigun; bestetik **H** eta **I** letrak zirela garbi egon arren, inizialetan laren lekuan okerreko **L** bat agertu zitzaigun.



Oñati letrarik letra (II)

JUANIKOGARRENA ala **Juaniko-barrena**? Era horretako zalantzak behin baino gehiagotan suertatu zaizkigu Oñatiko lekuzenei buruz jardun behar izan dugunean. Inoiz eztabaidatxoak ere piztu izan dira lagunen artean. Holakoetan pertsona zaharrek darabiltzaten formei kasu egitea izaten da seguruen. Eta are hobeto, pertsona helduen lekukotasuna idatzitako agiri zaharrek kontrastatzeko aukerarik baldin badugu.

Hasieran ipini dugun adibidean, esate baterako, bigarren aldaera erabiltzen da gehiago gaur egun, behar bada **-garrena** amaiera numeroei dagokielakoan, eta **-barrena**, aldiz, toponimian sarriagoa azaltzen delako. Baina Bidaurretako **Vera Cruz** kofradiako kideen zerrendan **Jose de Echezarreta, Juanico Aguirrena, Murguia** agertzen zaigu 1843an, hau da, oraindik baserri horretakoek duten deitura berberarekin. Beraz, garbi dago, gure iritziz, **Juaniko-agirrena** denborarekin **Juanikogarrena** eta gero **Juanikobarrena** bihurtu zela.

Inoiz idatzi izan dugun moduan, bada Murgia bertako jatorria duen beste izen bitxi bat ere: **Poparretxe**. Dirudienez, Murgiko Arratxe baserriatik dator ezizen hori. Gorago aipatu den Bidaurretako kofradiakideen zerrendan behin eta berriro ageri da XIX. mendean **Pope Arrache** goitizena eta ondoren beti **Biain** abizena, oraindik Arratxe baserrikoek eta, seguruenik, handik Auzotxora [Martzelino Zelaia kalera] etorritako familiakoek duten legez. Guk mutikotan **Paparretxe** esaten genuen, **papar** berbak, **Pope** [Lope, Txope] pertsona-izen klasikoak ez bezala, guretzat esanguraren bat zuelako-edo. Baina orduan ere gure gurasoek **Poparretxe** forma erabiltzen zuten.

Mordoxka polita osa daiteke antzinako dokumentuen bitartez argitzen diren leku-izen oñatiarrekin: **Antzueña/Antsoreña, Duruan/Duruara, Funduarterkua/Juandeugarterkua, Irabiertza/Irabedartza, Iruatz/Idigoras, Latostegi/Datustegi, Martezkua/Martilopezkua, Paanar/Pagonabar**, eta beste asko. Baina horiek hurrengo batean aztertu beharko ditugu sakonago.

KAROBIA inportantea izan zen sasoi batean baserri-ekonomian. Izan ere, **karea** zeregin askotarako erabili ohi zuten nekazariak: soroetako lurra samurtu, gozatu eta harrotzeko, etxeak zuritzeko, zomorroak akabatuzeko, bazterrak desinfektatzeko eta arrautzak gordezko, besteak beste. Horregatik leku askotan jaso zituzten hauts zuri preziatu hori ekoizteko harrizko labe berezi horiek.

Antzinako kulturek aspalditik ezagutzen zuten karea, historiaurreko aroetatik. Gure artean erromatarren garai-ko kare-aztarnak aurkitu dira Nafarroako Hegoaldean. Dena den, Euskal Herriko baserri-bizimoduan XVI. mendean geroztik geroago eta garrantzia handiagoa hartu zuen karegintzak, batik bat 1700tik aurrera, artoaren iraultzari esker, baserri berriak jaso eta luberriak erruz urratu zirenean.



Dolaetxeko karobia. Dolores Egañak utzitako argazkia.

Oñatik hainbeste baserri-auzo edukita, normala da karobi-kontuetan oparoa izatea. Baina ugaria bakarrik ez, harrigarria ere bada gure jaioterriko karobien ondarea. Egia esan, nekez topa daiteke inguruetan beste herri bat arlo honetan gureari hurrik emango dionik. Guk berrogeita hamarretik gorakoen arrastoak eta erreferentziak aurkitu ditugu auzorik gehienetan sakabanatuta. Lanbide honi duela berrogei urte baino gehiago guztiz utzi zitzaiola kontuan izanik, ez da marka makala.

Azken urteotako pistagintzek hondatu dituzte denbora gutxian horietako asko.

Alabaina, zenbaitzuk garbitu eta konpondu ere egin dira: esate baterako, **Olapotokoa** Larrañan, **Aiastui-Ugartekoa** Olabarrietan eta **Lurgorrietakoa** Araotzen; **Basazabalgoaren** aurrean **Kapirixo** elkarteak moldatutako panelak jarri dira; eta beste hainbat egoera nahikoa onean daudenez, txukuntzea eta seinalizatzea merezi dutela uste dugu: **Dolaetxekoa** Garibain, **Lamiategikoa** Garaigtzan eta **Madiñazubietakoa** Araotzen, adibidez. Edo nola ere, erdi eginda dagoen karobien inbentarioa bukatu beharko litzateke lehenbailehen, gero eraberritze- eta mantentze-plangintza serio bati heltzeko.

OÑATI LETRARIK LETRA




AMIATEGI lekuizen poetikoa eta adierazgarria iruditatu zait beti.

Egia esan, parajea ikusi besterik ez dago garai bateko **lamiñen** bizi-lekua izan zitekeela pentsatzeko; aintzinako ipuinen arabera, ibaietako emakume erdi-jainkosa, erdi-sorgin haiek, euren adats luze eta ahate-oinekin, horrelako osin eta erreka-zuloetan izaten omen zituzten egoitzarik estimatuenak.

Oñati/Garagaltza/Urruxola-garai/Koruetatik zehar Leintzera zihoan **galtzada** Zañartutik datorren bidearekin elkartzen den tokian dago kokaturik Lamiategi. Bidegurutze horretan, galtzadaren azken arrastoak ezezik, Artixa-erreka gaineko zubi polita, osina, karobia eta errota ere ikus ditzakegu. Leku ainube samarra izan arren, badu txoko honek erakargarritasunik.

Lamiategiko **errota** aspalditxokoa dugu. Bostehun urtetik gora ditu. Oñatiko Kontzejuak jasoerazi zuen 1488an, Gebaratarren erroretan (**San Migel** eta **Liñantzibar**) aleak derrigorrez eho beharrari ihes egin guran edo. Unibertsitatearena ere izan zen geroago eta, gizaldiz gizaldi makina bat gari eta arto urundu ondoren, orain dela 30 urte eskas isildu zitzaigun. Lamiategitik Garagaltzarainoko galtzada-zatia ez da asko porlandu zigutela, eta orain errota honetarako urak batzen zituzten **presa** eta **malatua** zeharo hondatzeko arriskuan daude. **Albarritza** baino beheratxoago aurkitzen den bost mendetako presa hau une honetan apurtuta dago, eta, zerbitu



Juan Madinabeitia

azkar egiten ez badugu, gure kultur-ondarearen beste lekuko garrantzitsu bat betiko ezkutatuko zaigu.



ADINABEITIA anaiak, gerra ostean aipatue-zinezko alegorrixak

bihurtu baziren ere, ospe eta izen haundia izan zuten gure herrian eta Oñatitik kanpora, batez ere, XX. mendeko lehenengo hiru hamarkadetan. **Juan Madinabeitia** (1861-1938) eta **Jose Madinabeitia** (1870-1923) Santa Marinako plazan dagoen deitura horretako oinetxe ederrean jaio ziren, beste sei anai-arrebez gain, familia aberats eta liberal baten baitan. Aita alkate izatera iritsi zen azken karlistada bukatu bezain laster, baina jokalaria amorratua genuen nonbait, eta hortik etorri omen zen Madinabeitiatarren beherakada ekono-

miko ikaragarria.

Porrotori, ordea, ez zen erabatekoa izan, familia-ko mutilek, gutxienez, karre-
rak egiteko aukerak eduki baitzituzten. Juan eta Jose (**Pepe**) mediku famatuak izan ziren bakoitza bere sailean, bata Madrilen eta bestea Bilbon eta Eibarren. Juan Madinabeitiak, **Oloriz**, **Ramón y Cajal**, **Sañudo** eta beste sendagile ezagun batzuekin batera, estatuko medikuntza zaharkitua eraberritzeko oinarriak ipini zituen; punta-ko gastroenterologoa eta irakasle emankorra bilakatu zitzaigun etengabeko lanari eta ikerketari eskerrak; eta bere ikasleen artean, besteak beste, **G. Marañón**, **N. Atxukarro**, **J. Negrín**, (gerra denboran presidente izango zena), **H. Mogena** eta **I. Barriola** mediku jaunak aipa genitzake.

Politika mailan ere gizon aurreratua izan genuen Juan Madinabeitia: jatorriz eta ofizios burgesa izan arren, ideia anarkistak zeuzkan; zenbait alderdi politikiton sartzeko eta karguak eskuratzeko eskaintzarik ez zitzaion falta izan, baina berak azken arte eutsiko zion bere

jokera libertario eta idealistari; pobre eta behartsuentzako makina bat lan egin zuen dohain, bere klaseko beste askok ez bezala, kontzientzia sozial zorrotza erakutsiz. Dena den, gizon atsegina eta oso tolerantia omen zen, maila eta ideologia guztieta-ko pertsonak adiskidetzat eduki zituelarik.

Jose Madinabeitiari buruz, lekurik bagenu, orrialde osoak idatziko genituzke. Esan dezagun, laburtuz, mediku aurrerakoia, sozialista atipikoa, euskal kulturaz arduratua, burukalari sutsua, irakasle asperkaitza, esku zabaleko laguna, langile nekaezina, musikazale eta kantari fina eta bihotz oneko gizona izan zela. Akatsak ere bazituen, noski: nabarmena, agian, gauzak borobildu gabe uzten zituela sarritan, berea ereitea, irakastea, ekitea baitzen, ondoren zetozenek berak hasitakoak burutuko zituztelakoan. Peperen izakera nolakoa zen ondo erakusten digun adibidetxo bat hau litzateke: Bilbo aldean amaiera jakinik gabeko lehenengo greba luze eta basatiak hasi zirenean, langileen familietako arazoak eta goseteak nolabit arintzearen, Bizkaiko ume proletarioak Eibarko sozialisteen etxeetara ekartzea bururatu zitzaion Jose Madinabeitiari, haurrak, behintzat, eskolarik eta janaririk gabe gera ez zitezten.

Juan Madinabeitiak badu bere biografia, **Daniel Zulaika** mediku zarauztarrak moldatu eta 1985ean argitaratu zuena. Peperi buruzko albisteak, ostera, han-hemenka sakabanatuta daude. Mereziko luke, benetan, oñatiar bitxi honen idazlanak eta nondik-norakoak bildu, iker-tu eta ezagutarazteak.

JERARDO ELORTZA

Oñati letrarik letra (II)

LEOUARDO JOSE ZABALETA

Gereta abade jauna (1889-1955) mutikoak ginea ezagutu genuenontzat ez zirudien, itxura batean, oso pertsona ilustratua zenik. Dotrinan, sermoigintzan eta elizkizunetan ez zuen aparteko etorriak eta dotoretasunik. Baina gu baino zaharragoak zirenek esaten zigutenez, asko irakurria omen zen eta etxe guztia liburu eta paper zaharrez beteta omen zeukan. Eta izan ere, holaxe zen, bera hil ondoren utzi zituen dokumentuek erakutsi zuten bezala.

Apai-ikasketetatik aparte ez zuen nonbait estudio berezirik burutu, baina berezko zaletasuna zeukan historia, genealogia eta filologiarako. Urte askoan koadjutore gisa jardundako Oñatiko San Migel parrokiako arxiboa sakon arakatu zuen eta ahozko tradizioz jasotako kontu ugari zekizkien. Tamalez, oso gutxi argitaratu zuen. Bere bizitzaren azken aldera lau lan gogoangarri agertu zizkioten 1950ko hamarkadaren hasieran Iñaki Zumalde eta abarrek kale-ratzen zuten **ONATE** aldizkari ederrean:

Oñate en los albores de su historia eta **Recuerdos de las guerras carlistas**, gai historikoen inguruan; eta **El dialecto de Oñate** eta **Variedad dialectal vasca de Oñate**, gure herriko euskarari buruz.

Azken lan bi horiek ezinbesteko abiapuntua gertatu zitzaizgun Oñatiko **berbertia** aztertzen hasteko. Alabaina horietatik aparte, hamaika ohar, hitz-zerrenda, kanta-paper, argazki eta agiri interesgarri topatu genuen bere materialen artean. Kandido Zubizarreta Arantzazuko arxibozainak eskuratu zizkigunetik, makina bider baliatu gara berauez. Besteak beste, Aita Adriano Lizarralde Olabarrietako Arrazola-azpikuan aurkitu zituen euskarazko eskuizkribuen gorabeheri buruzko albiste garrantzitsuak bildu zizkigun Zabaletak. **Manuel Umeretz** (1757-1818) idazle oñatiarraren bi liburuen gainean, hain zuzen. Eta Don Leonardoren bitartez ezagutu zituzten manuskrituok Bonifazio Etxegarai, Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena eta beste euskalari eta euskaltzale batzuek.

Euskaltzalea genuen Leonardo Zabaleta bera ere, nahiz eta politikan abertzalea ez izan. Julio Urkixo, Resurrección María Azkue, Ignazio María Etxaide, Ignazio Omatxeberria, Antonio Arrue eta beste batzuen kidekoa zen horretan. Urte askoan egindako irakurketa eta ikerketetan etimologia- eta gramatika-arloko landu zituen batik bat. Biltzaile porrokatua ere bazen Zabaleta eta horri eskerrak, gorago aipatu ditugunaz gain, **Frantzisko Segura Etxeberria** (1808-1894) euskalari oñatiarraren lanak gorde zitzaizkigun. Bestalde, abade erudito honen paperen artean azaldu ziren Oñatiko unibertsitateko estudianteeek XIX. mendearen hondarreko inauterietan moldatu zituzten kanta-eskerako bertsoak. Beraz, arrazoi askorengatik gaude zorretan Leonardo Zabaletarekin.

MADINA ETA MALLEA, Mallea eta Madina elkarrekin betiko uztartuta geldituz diren izenak ditugu. **Frantzisko Madina Igaizabal** (1907-1972) eta **Luis Mallea Arekita-Belaustegi** (1908-) laterandarrez ari gara, jakina.


Aspalditxo hil zitzaizgun Zubillagako jaiotetxean oñatiarra; laurogeitakada urterekin oraindik bizi da munitiartarra Oñatin. Baina urte ugari pasatu zituzten batera Oñati, Burgos, Buenos Aires eta New York-en.

la adinkide genuenak biok; ikasketak ere bateratsu egingo zituzten Oñatin eta Burgosen. Fernando Urkia arbitzarraren ikuita izango zuten batak nahiz besteak hemen egon zirenean; baita Jose Maria Beobide organojoletak zumairena ere Gaztelako hiriburuan teologia ikasten jardun zutenean. Baina harremanik estuenak Ameriketako lurretan eduki zituzten: Argentinako hiriburuan lehendabizi, Estatu Batuetako hiririk handienean geroago. Biak 1930ko hamarkadan Gerra Ameriketara joanak baitziren.

Gerra ostean Argentina euskal diasporaren gunerik sendoenetakoa bihurtu zen. Han mamitu ziren hemengo diktadurapean gauzaterik izan ez zuten ahalegin batzuk. Musikari dagokionez, Luis Malleak bere gain hartu zuen 1939tik aurrera eta luzaroan —1967ra arte— Buenos Airesko **Lagun Onak** abesbatzaren zuzendaritza, euren errepertorioan Madinaren hainbat musika-lan sartu zituelarik. Gorabehera batzuen ondoren, koru honek estreinatu zuen 1947an Txipitxailleko semearen **Aita Gurea** ospetsua. Lankidetasuna ez ezik, lehia ere sortu zela esan daiteke bi fraide agustinoen artean.

Frankismoarentzat, ordea, gauza guztiak ziren susmagarriak, Argentinako puntan izan arren. Hemen dena debekaturik zegoenean, laterandar hauek beste elizgizon eta sekular euskaldun batzuekin batera, euskal kulturari nolabait eutsi guran, lurralde haietan egiten zutena oso larria iruditu zitzaizkien Madrileko Atzerri Arazoetarako Ministerioko arduradunei. Enbajadoreen arteko gutunak ibili ziren batera eta batera 1950 inguruan. Eta Vatikanora ere iritsi ziren ministro frankisten kezak. Auzi honetan ere elkarrekin erabili zituzten Madina eta Mallea: bion izenak ageri baitira batera eskutitz horietan, elementu oso arriskutsu balira bezala.

Alberto Martín Artajo zen garai hartan Atzerriko Arazoetarako ministro Espainian, eta gerora antifrankista bihurtuko zen **Joaquín Ruiz Giménez** Vatikanoko enbajadore. **Xabier Lopez Mendizabal** tolosarrari zor dizkiogu informazio hauek. Baina Luis Mallea berak kontatu zigunez, azpiko hauek eragin sakona izan zuten bere bizimoduari: urte haietan Oñatira itzultzekotan zen Mallea, Oñatiko komentuko buru aukeratu zituelako. Argentinan, ordea, aipatu dugun arazoa hau zela-eta, enbaxadako agintari espainiarrek ez zitoten pasaportea eguneratu. Mallea ez zen Franco hil arte gure artera bueltatu. Eta gero batzuek esango dute diktadura hura ez zela hain gogorra.



Leonardo Zabaleta abadea.
Miguel Angel Arzuagaren marrazkia.

OÑATI LETRARIK LETRA

AFARRO-

A r a
kaminoz
joateko,
g a u r
egun ibil-
bide luze
eta aldrebes

samarra egin behar badugu ere, sasoi baten jendea oinez, zaldiz edo mandoz ibiltzen zenean, ez zegoen erreinu zaharra oñatiarrentzat hain urruti. Arantzazu eta Urbiatik Araba aldera jota, egun bateko bidean sar zitekeen Burunda nahiz Lizarraraino. Horregatik, bada, betidanik egon da joan-etorri eta harreman asko Nafarroa eta gure herriaren artean.

Oñatiri buruzko lehenengo albisteak Nafarroarekin lotuta azaltzen zaizkigu, hemengo jaunak, Gebaratarrak, gerora Araban kokatu arren, jatorriz nafarrak baitziren. Gure Unibertsitateak zabalik iraun zuen mendeetan zehar ikasle, maisu eta errefoe ugari inguratu zitzaizkigun Nafarroatik. Arantzazurako jokera handia zegoen lurralde hartako hainbat bailara eta herritatik. Zorixarrez, istilu politikoek bulzturiko nafarrak ere ikusi behar izan genituen paraje hauetan, hala nola, joan zen mendeko karlistada bietan zein azkenengo gerratean. Aitor dezagun, bidenabar, ez zela oñatiarrik falta izan Nafarroako gudu eta gatazketan.

Baina Oñatiratzin zitzaizkigun nafar gehienak oso era baktezuan iristen ziren: ganaduak, ardoak, olioak edo mahatsa saltzera, komentu eta fraidetegietan latinak ikastera, gure mendi eta basoetan ikazkintzan aritzera, baserrietan morrontza-lanak egitera edota fabrika eta lantegietan eguneroko soldata irabaztera. Duela 70 bat urte, Oñatitik San Prudentziaroko trenbidearekin batera samar, Lizarratik Gasteizerako burutu zenean, Estella aldetik heldutako hamaikatzu andra-gizon errotu zitzaigun gure artean.



OÑATI/OÑATE

Dena den, Nafarroako eskualde eta herri askotan sortutako seme-alabak ezagutu zituen Oñatiko herriak: *Azpilikueta, Irurita, Lesaka, Etxarri, Lakuntza, Bakai-ku, Arbizu, Abaigar, Legaria, Oko, Antzin, Abartzuzua, Nazar, Sorlada, Deikaztelu, Gares, Fal-tzes, Azkoien, Biana, Pitillas, Bal-terra, Argetas, Tuteru, Iruñea, Oroz-Betelu, Otsagi* eta beste zenbait lekutatik heldu zaigu Oñatira nafarren ahalegina, keme-na eta lana.



ÑATI eta

Oñate.

Bietara

deitu

izana

diogu

gure jaiote-

rrinari, eta

hasiera-hasieratik gainera. Erdi Aroko dokumentuak arakatzen

baditugu, garbi asko ikus dezakegu aipatu berri dugun bikoiztasun hori. Eta beste bitxikeria batekin ere erraz kontura gaitezke: orduko eskribauek buruhauste galantak izan zituztela gure herriaren izena idazterakoan, alegia. Izan ere, 18 era desberdinetan, hamazortzitan, bai, transkribaturik baitago **Oñati/Oñate** toponimoa aintzina-ko agiritan. Bukaeraz aparte (-il -e), *n* letraren bustidurak eman zizkien lanik handienak sasoi hartako lumadunei. Baina ez faltatze-arran, *h*-rik ere ez da falta testu zahar horietan.

Azterketatxo honetan **Rosa Aierbe** historiagileak Oñatiri buruz argitaratuko lanei jarraitu diegu eta berak egindako transkribaketaz fidatu gara, jakina. Testuok XIV eta XV. mendeetakoak ditugu. Lehen hiru formak itxura baten aintzinagoko dokumentutan agertu ziren, baina, azken urteota-

ko kritika historikoak frogatu duenez, apokrifoa dira, hots, faltsuak, eta seguraski XIV-XV. mendeetan moldatuak izango ziren hauek ere.

Hona hemen jarraian, dokumentua idatzi zeneko urtea adieraziz, aipaturiko 18 forma desberdinok:

- 1.-**Oñati**: 1149 (apokrifoa)/1395/1466/ 1477.
- 2.-**Oñatte**: 1149 (apokrifoa).
- 3.-**Oñati**: 1200 (apokrifoa)/1470/1478.
- 4.-**Oñat**: 1305.
- 5.-**Oñnat**: 1309 /1323/ 1352.
- 6.-**Oñnate**: 1388/ 1395/ 1454/ 1458 /1467/ 1469/ 1477/ 1489/ 1498.
- 7.-**Oñate**: 1389 eta 1479 bitartean 23 dokumentu desberdinetan.
- 8.-**Oñatte**: 1389.
- 9.-**Oñate**: 1477/ 1481/ 1489/ 1495.
- 10.-**Honnate**: 1388 (?).
- 11.-**Hoñate**: 1419/ 1440/ 1477/ 1484/ 1498.
- 12.-**Honate**: 1477.
- 13.-**Honati**: 1477.
- 14.-**Oynnati**: 1351.
- 15.-**Oñati**: 1411.
- 16.-**Oñaty**: 1411/ 1448/ 1455/ 1477.
- 17.-**Oñnaty**: 1455/ 1483/ 1486.
- 18.-**Oñati**: 1451/ 1466/ 1475/ 1477.

Kontuan izan hamazortzi aldaera hauek behin baino gehiagotan azaltzen direla Erdi Aroko agiri horietako askotan. dokumentu berean forma desberdinak maiz topa daitezkeela, eta izkribuok latinez eta gazteleraz moldatuta daudela. XVI. mendetik aurrera **Oñate** forma nagusituz joan zen gaztelerazko testu eta hizketetarako; **Oñati**, berriz, euskerazkoetara mugatu zen, azken aldi honetan izen ofizial bihurtu den arte.

Guztiau ortografiar burukinaz izaten dituztenen kontsolagarri eta aringarri gerta dadila!

JERARDO ELORTZA



Oñati letrarik letra (II)

NIKOLASTARRAK Oñatiko kale aldean ez dira, akaso, oso ezagunak izango, baina Araotz eta Arantzazu inguruko auzotar askok gogoan dituzte oraindik antzinako pertsonaia horien ipuinak eta historiak. Ez dago oso garbi **jentilak** ote ziren edota **deabruak**. Jentilak kristautasuna zabaldu aurretik hemen bizi ziren euskaldunak ei ziren. Kontua da nikolastarrok handiak, indartsuak eta hargin onak zirela. Zubigintzan jarduten zuten batez ere. Horrela agertzen da, behintzat, ahozko tradizioaren bidez heldu zaizkigun elezaharretan.

Bitoriano Gandiagak 1950ko hamarkadan Arantzazu auzoko baserriarregandik jaso zituen lekukotasunetan behin baino gehiagotan azaltzen dira izaki erraldoi eta eta harri-zale hauek. Jentil guztiak deitzen omen ziren Nikolas; hortik zetorkien, nonbait, euren deitura ere. Lanean ziharduteanean ere igartzen zitzairen zein jatorritakoak ziren. Eskuz lantzeko behar zituzten harriak **habraillarekin** [habailarekin] jaurtitzen zituen Anbototik edo beste mendiren batetik Nikolasen batek: **-Aiba, Nikolas!** zioen lehenengoak. Eta besteak: **-Bota Nikolas!** erantzuten zion. Eta bigarrenak hirugarrenari. **-Ipinik Nikolas!** Eta era horretan kapazak ziren, hainbat ipuinetan kontatzen den legez, gau bakarrean zubia eraikitze-ko.

Arantzazuko erreka-arroaz bestaldetik eta aparkaleku nagusiarekin aurrez-aurre aurkitzen den Aitzabal mendiaren gailurretik hurbil **Jentillen pasiolekua** dagoela esaten dute auzotarrek. Eta handik komentu alderako malakarrera errotarriekin jolasean aritzen omen ziren jentilak: **-Aiba, Nikolas! Benga, Nikolas! Hamalau milla, Nikolas!** elkari esanez. Eta **Arrikruzeko lizunean** (haitzuloran) ere harlanduzko bi aska ei daude jentilek egindakoak. Beste gauza askoren artean, auzo "nikolastarra" ere badu-gu Arantzazu.

Kristautu ondorengo garaietan ere beste Nikolas bat, **San Nikolas Barikoa**, estimatua izan da oñatiarren artean. Egia esan, ez zuen, guk dakigunez, Oñatin ermitarik eduki, baina bai aldare ederra San Migel parrokian. Erretaula XVI. mendekoa zeukan eta aldare nagusiaren eta Pietate-kaperraren arteko zutabe borobilarri erantsita egon zen 1955 aldera arte. Hango irudi batzuk parrokiako sakristian gordetzen dira eta beste batzuk Donostiako Elizbarruti-museora eramane ziren. Aldare horri, erdi txantxetan, **mailegu eta enkan-teena** deitzen zitzaion, santu titularrak, San Nikolasek, bederatziruarenak zirela-eta, beste santu-irudi batzuei utzi behar izaten baitziren bere egonlekua.

OTADUI abizena, marka da gero, hain oñatiarra izanik, guztiz ezkutatu zaigu gure herrian. Ingurukoetan, berriz, geratzen da gutxi-asko: Eibar, Bergara, Eskoriatza eta, batez ere, Arrasaten. Oñatiko Uribarri auzoan izango zuen sortetxea seguru asko, han hiru baserri baitziren **Otadui** izenekoak: **Haundi / Txiki / eta Etxebarri**. Oraindik ere bik jarraitzen dute zutik.

Deitura horretako elizgizon ospetsua izan zen **Lorenzo Asensio Otadui eta Abendaño** oñatiarra. Kale Barriko edota, orduan esaten zen bezala, Kale Goienako Otaduiarren etxean sortu zen XVI. mendearen erdialdean-edo, eraikuntza dotore horren ertzeko balkoian dagoen azulejoko armari kuriosoak adierazten digunez. Oñatiko San Migelen benefiziadun egon ondoren, irakasle izan genuen Alcalá-ko unibertsitatean, kalonje Alcalá-n eta Cuencako katedralean, Lugoko apezpiku 1591ean eta Avilako geroxe-ago. Gaztelako hiri horretan hil zen 1611an. Bitxia da Avilak oñatiarrekin izan duen harremana: Otaduiaren aurretik Rodrigo **Mercado Zuazola** ospetsua izan zen hango apezpikua; eta askoz berandua-ago, 1824an, Ramon Maria **Adurriaga Uribe** oñatiarra izendatu zuten kargu horretarako.



Karguak-kargu, beste arrazoi batzuen-gatik dugu begiko Otadui apezpikua txantxiakuarrok. Sasoi hartan gure arbasoek etengabeko liskarrak eta gatazkak zeuzkaten kondearekin. Erdi Arotik Aro Modernora aspalditxo pasatuak izan arren, oñatiarrek Gebaratarren apeta eta kapritxoen mende jarraitzen zuten artean. Horregatik, herriko kontseilua nahiz parrokiako kabildoa beti ari ziren auzitan euren jauntxoarekin: ohiko alkatearen izendapena zela, elizako jarlekuetan esertzeko lehentasuna zela, elizaren hamarren eta hasikinen banaketa zela, eta beste mila arazo eta huskeriengatik eztabaida, sesio eta sestrak pizten ziren sarritan herriko agintari eta kondearen artean. Lorenzo Asensio Otadui alde bien arteko bitartekaritza egiten saiatu zen inoiz, baina arrakasta handirik lortu ez zuenez, auzitara jo behar izan zuen herriak behin eta berriro.

Hartarako, ordea, dirutza ikaragarria xahutu behar izaten zen, judizioak oso luzeak eta garestiak izaten zirelako. Halakoetan kontzejua herriko seme ahaltsuen laguntza bilatzen zuen, auziekin jarraitu ahal izateko. Otaduiaren erantzuna oparoa izan zen, benetan, 8.000 dukateko diru-kopurua eskuratu baitzion Oñatiko herriari, haren errentekin kondearen aurka zeraman borrokan aurrera egiteko modua izan zezan. Harrezkero, oñatiar gisa, esker oneko sentimendua nabaritzen dut Avilako apezpiku honenganako.


OÑATI LETRARIK LETRA

letraz hasten
diren
berba
askotza-
rik Oña-
tin ez
zegoelakoan,
han-hemenka

begiratzeari ekin nion eta orain ez dakit zeri edo nori heldu, uste baino aukera aberatsagoa aurkeztu baitzait. Idazteko lekua ondo aprobetxatu beharra dagoenez, gainpasada azkar bat egin beharko diot Oñati aldean topa dezakegun hainbat hitz peduni.

Badakizue sasoi baten ia auzo guztietan **pater** edo ermitazainak egoten zirena? Hortxe dator, hain zuzen, Zubillaga, Olabarrieta, San Lorentzo, Uribari eta beste auzo batzuetako **Paterretxe** edo **Faretretxeak**. **Pope** izen zaharrak ere (**Lope**-ren aldaeraren bat seguruenara) forma bitxiak eman ditu Oñatin: **Popena**, **Popelabena**, **Txope** eta **Txopekua** ezetik, **Pope Akel**, **Pope Txuri**, **Pope Torre** eta **Pope Arratxe** ere pertsona-izen horretatik datozela dirudi. **Pope Arraxteren** bilakaerak gaur egun **Poparretxe** eta **Paparretxe** formak eman dizki-gu.

Baserrietan badira bi kasu kurioso: Larrañako **Pollan-gua**, XVIII. menderarte, gutxienez, **Orueta** zena, eta **Pardios-kua**, lehenago, dirudenez, **Izurrategi** genuena; Madalenan dagoen baserri honetako norbaitek **pardiez**, **por Dios** edo antzekoren bat esateko ohitura handia zuelako, aldatu omen zituen etxe honi izena. Bestelako toponimotan ere bada adibide bitxirik: **Paanar** (antzinako **Pagonabarra**ga batetik), Zañartu-Garagaltza aldeko erreka- eta basoizena; **Potorrosin**, Urruxulako errotatik aurrera joanda dagoen erreka-zulo idilikoa; **Petrinaitz**, **Donepetri** toponimoan bezala, **Petrus**-i ren (Pedro) arrastoren



Rodrigo Mercado Zuazola apaizpekua

bat duelarik, Arantzazutik Urbiara goazela Arabako mugan; **Pertxa**, izen enigmatikoa Mendiko kaletik Zumeltze-girako igoera aldatu, etab.

Eta amaitzeko, ezizen ozen banaka batzuk: **Pello txiki**, **Pello zoro**, **Peto**, **Petokin**, **Piku**, **Pollibi**, **Potonio**, **Porru** eta beste. Bidaurretako **Vera Cruz** kofradiak kideen zerrendetan ikus daitekeenez, ezizen hauek orain dela 150-200 bat urte erabiltzen ziren Oñatin.



ODRIGO
b a t a ,
Rodrigo
beste;
Errodri-
g o t x o
lehena, **Don**

Rodrigo bigarre-na; Uribarriko **Baltzategi** baserrian jaioa zaharrena, **Kale barri** erdi inguruan gaizteena. Dena den, oso urte gutxiren aldearekin munduratu ziren biak Oñatin XV. mendearen erdi aldera. Bizimodu zeharo desberdinak izan arren, 500 urte geroago ere bata nahiz bestea oñatiar ospetsuenen artean agertzen zaizki-gu.

Baltzategiko Errodrigotxo, zoriokero artzaia: / hik entzun huan lehenengo aldiz zeru-deiaren kanpaia dio **Salvatore Mitxelena** olerkariak **Arantzazu** izeneko poeman. Hortik datozki gure artzain txikiari, bai, sona eta fama: Arantzazuko haizarte malkartsuetan Ama Birjinaren irudia eta arrana aurkitzeagatik. Harrez gero hamaika erromantze, kanta, bertso, ipuin eta elezharretan aipatzen da Aloña mendiaren maldetan sortu zen uribarrir honen izena. Egia esan, ez daukagu bere bizitzari buruzko albiste gehiegi; inoiz alegiazko, hots, leiendak asmaturiko pertsonaia izan ote zen ere pentsatu izan da. Baina ez; ondorengo gizaldietan idatzi ziren aipamez gain, 1489ko oñatiarren zerrenda baten —Arantzazukoa gertatu eta handik 20 bat urte— Uribarriko auzotar gisa azaltzen zaigu, egoera ekonomiko itxurusoan eta ezkondua, dirudienaz, bere suhin eta seme bat ere agertzen baitira. Tradizioak dionez, emakume mondraguetar bat izan omen zen **Errodrigotxoren** emaztea.

Don Rodrigok, berriz, oso urte gutxi pasatu zuten Oñatin, baina jaioterriarekin har-

man sendoak izan zituen. **Mercadotarra** genuen aitaren aldenik eta Arrasateko jatorrikoa seguraski; **Zuazolatarra** amaren adarretik eta Oñatikoa ziurrenik. Gazte-gaztetatik elizgizon izan zen, baina gauza guztien gaine-tetik letradun, dirudun eta kargudun; ordena txikiak hartetik apaiz izatera 30 urteko tartea utzi zuen, bere **curriculum**a itxuratu arte; abade eta apezpiku, ordea, hilabete gutxiren buruan bihurtu zen; Mallorcako gotzain izendatua izan arren, ez zuen sekula zapaldu Mediterraneo-ko isla eder hura; politika mailako beste egingizun batzuetan aritu zen batez ere; inksidore nagusi, erregearen aholkulari, Nafarroako Erreinekoko gobernadore, Granadako Auzitegi Goreneko presidentea eta azken aldera, Avilako apezpiku egin zutenean, Valladolideko gorte inguran jardun zuen gehiago Avilan bertan baino; nahiz eta osasun eskas samarrekoa izan, urtetsu hil zen Pisuerga ibaiaren ertzeko hiri hartan 1548ko urtarrilaren 29an.

Ordurako makina bat obra burutu edo hasi zuten Oñatin: 1526-36 bitartean San Migel parokiako **klaustru gotikoa** eta Piedadeko Amaren **kapera platereskoa**, bere hilibi, erretaula, mausoleo eta erraja bikainekin; 1540-48 bitartean, berriz, hiru mende terdi iraungo zuten **unibertsitatea**, Euskal Herri osuan dugun Pizkunde garaiko erakuntzarik dotoreena. Gure Zuazolak ez omen zuen bata ere ikusteko aukerarik izan. Alabaina, gortean hil ondoren, Oñatikoko parrokian berretzat eta bere familiarientzat jasotzeko zuten kapera paregabearen ehortzi zuten. Don Rodrigoren armariaren eguzkiek gure herriko bazter eta txoko ugarietan erakusten ditute oraindik apezpiku-politiko errenazentista haren azterna argitua.

JERARDO ELORTZA



Oñati letrarik letra (II)

PALACIOS ETA LEZETA

Frantzisko Antonio izan zen, beharbada, XVIII. mendeko oñatiarrik ospe-tsuen. Kale Zaharrean jaio zen 1727ko urriaren 4an, orain dela urte batzuarate Illarramendineko okindegia zegoen etxe berean, seguru asko. Hautzaroa jaioterrian igaro ondoren, Madrilera eraman zuten amaren aldetik zituen senideengana, hiri hazi batean egon ohi den goi-mailako jendearen ohiturak ikasteko-edo. Gure mutikoa, ordea, ez zegoen nonbait horretarako eta sorterrira bueltatu zen, Arantzazuko frantziskotarren kide izateko gogoia sartu baitzitzaion.

Eta ez zen, ez, nolana hiko fraidea izan. Hainbat urtetan aritu zen irakasletzan Tolosan eta Arantzazun, eta gaixoaldi larri bate-tik, bere ustez, Ama Birjinari esker onik irten eta gero, Arantzazuko Amarenganako debo-zioa indartu egin zitzaion, bizitza espiri-tualaren barrunbe sakonetan areago mur-gildu zelarik. Handik laster erabaki latza har-tu zuen: ordura arteko bizimoduari utzi eta Zarauzko Misiolarien Mintegian sartzeko eskabidea egin zuen.

Aita Palacios 1762an joan zen Zarauz-terera. Harrezkero, berrogei urte baino gehia-gotan, ia Euskal Herria osoan eta ingurue-tan jardun zuen misiolaritzan, bere garai-ko sermolaririk famatuenetakoa izatera iri-tsiz. Euskaraz nahiz erdaraz hizlari trebea omen zen. Hala ere, idatzi egiten zituen bere sermoiak. Zarauzko frantziskotarren komen-tuan dozena bat liburu gordetzen dira argi-taragebako eskuizkributan, Palaciosen euskarazko eta erdarazko sermoiez osaturik. Dena dela, hiru liburu kaleratu zituen erda-raz, eta bere adiskide Aita Antonio **Añiba-rrro** bizkaitarrak horietako birekin euskarazko **Lore-Sorta Espirituala eta Propositu San-tuak** moldatu zuen.

Orduko misiolari guztien antzera, pen-tsamolde guztiz estua zeukan gure Aita Pala-ciosek. Eta, batetik bestera egi o ibiltzea egokitu zitzaiolako, **Padre Caminos** ezi-zena jarri bazioten ere, beti eutsi zion Oña-ti eta Arantzazurekiko harremanari.

ROBIC ETA RONDEAUX

oso etxeakoak genituen oñatiarrok orain dela berrogeita hamar urte pasatxo Orduan bizikleta-lasterketa bikainak antolatzen ziren gure herrian: gerra aurrean, 1935ean, hasi zen **Arantzazuko Igoera** gogorra; gerra oste latze-an berriz, 1947an, **Bidaurretako Kilo-metroa** eta **Ziklo-krosa**. Azken hau, gainera, nazioarteko proba entzutetsu bihurtu zen 1949tik aurrera. Atzerriko txirrindularien artean ez dakit aipatu-tako bi frantses horien adina besterik estimatzen ote genuen Oñatin.



Jean Robic




Roger Rondeaux

Jean Robic bretoaia, Arratiako txekorra bezala, txikerra baina gogorra zen. Terreno guztietan moldatzen zen ondo. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo lehen Tourra 1947an irabazi arren, bere palmaresik distiratsuen, akaso, ziklo-krosean lortu zuen. Espezialitate honetan Nazioarteko Criterium-ak eskuratu zuen 1947an eta Munduko I. Txapelketa ofiziala 1950ean.

Roger Rondeaux ez zen Robic baino askoz handiagoa, baina bai hura bezain saiatua eta lehiatsua. Nahiz eta beste txirrindularitza-arlo batzuetan poliki jardun, ziklo-krosean nabarmendu zen hau ere. Dozenerdi bat urtetan Robic eta bera nagusitu ziren bizikleta gaineo eta oinezko kirol-mota zail horretan. Rondeaux 1948 eta 1949ko Nazioarteko Criterium-ean irabazle izan zen, eta 1951, 1952 eta 1953ko Mundu Txapelketak ere berak erdietsi zituen.

Oñatin ere ez zituzten marka mak-lak jarri. Robic-ek Arantzazuko XII. eta XIII. igoerak irabazi zituen 1949 eta 1950ean. Urte honetan, gainera, proba horretako errekorra ezarri zuen. Oñatin 1950ean korritutako Nazioarteko Ziklo-kros proba ere beretzat izan zen. Rondeaux-k, aldiz, 1952an eskuratu zuen garaipena Arantzazuko XV. igo-eran eta 1949 nahiz 1953ko ziklo-kro-sean. Azken hau, jakina denez, IV. Mundu Txapelketa izan zen.

JERARDO ELORTZA



OÑATI LETRARIK LETRA

ANTU eta
santa ugari
izan dugu
Oñati
aldean.
Lekuizenei
begiratuz
gero, behintzat,



Portalekua Lekunbarri-Trianarako sarreran.

tzen zen; orain izen hori inguru hartako plazatxo eta kale bati ematen zaie); **Santipillao** eta **Santa Krutz** Garagaltza auzoan (lehenak San Pelairoekin omen du zerikusia eta baserri bati deitzen zaio orain horrela; bigarrena, berriz, goraxeago dagoen **Kurtze Santu** izeneko muinoan aurkitzen zen ermita omen zen XIX. mendera arte); **Santa Koloma** Urruxolan (Errota baino gorago bada gaur egun ere **Koloma** deituriko paraje bat); eta Zubillagako **San Bartolomen** aztarnak Matromai baserri-izenean ikus ditzakegu (**Martolomai** formatik abiatuz).

Jatorrizko funtzioari eutsi dioten batzuk, aldiz, ondorengo hauek dira: **San Jose**, Olabarrietako ermita; **San Lorentzo** Larrañan (nahiz eta orain herriko auzo handienetako bati ere izena eman dion); **Santa Lutzia** Berezaon; **San Esteban** Lezesarrin (Azkoagain baino goraxeago); **San Andres** Uribarrin; **Sandailli** Jaturaben Araotzerako bidean (*San Elias* batzuentzat, *Santa Ilia* besteentzat; zaintzen ez badugu, laster ez bata eta ez bestea); **Santa Krutz** Ugastegin, baina Oñatiko lurretan; **San Juan** Garagaltzako ermita eta **San Juan** kalea denbora bateko Zubiko errebala zena; **Santa Katalina** Goribarren (orain **San Isidoren** ermita bada ere, alboko etxeak izen zaharra darama); **San Pedro** Torreauzon eta Zubillagan; **Santa Krutz** Zañar-

tun; **Santa Maria Magdalena** Maala bihurtu zaigu Antsolopeztegi eta Murgian; eta Madalena auzoko **Santuekua Santuru** pertsona-izenetik dator, hau da, Santos-en kide batetik.

Gainera zenbait garaitan Kale Zaharreko goiko parteari **San Migel** zeritzon (horregatik ospatuko dira hor *San Migel txixixak*), Atzeko kaleari **Santa Maria** eta **Santiespiritus** unibertsitate ondoakoari (egungo Aita Madina Kolejio kalea izan zen denbora askoan eta unibertsitatea bera *Sancti Spiritus* izenez bataiatu zuten). Parrokiak eta komentuak beste baterako utziko ditugu.

TRIANA eta TETUAN bezalako lekuizen "arro-tza-k" nondik eta nora Oñati lako herri hain euskaldun batean? galdetuko luke baten batek. Izenen historiak gorabehera ugari izan ohi ditu eta arrazo bat baino gehiago egoten da bata ala bestea aukeratzeko: arrazoi politikoak, soziologikoak, modak, prestijio-kontua, kolonizazioak, etab. Euskal Herriko toponimiarik gehiena euskararen errotiak izanik ere, badira gure artean inguruko hizkuntzetatik hartutako lekuizenak ere; batzuk aspalditxo-

tik geureganatuak: **Tolosa**, **Granada**, **Toledo**, **Córdoba** (*Gordoa*, *Cordovilla*) eta beste; askoz berriagoak beste batzuk.

Azken hauetarikoen antza daukate Oñatiko bi auzo horietako izen herriko horiek. Orain **Triana** eta **Tetuan** deitzen diren bi auzo horiek XV-XVI. mendeetatik aurrera erreka bestaldetik hazi ziren; errementariak, ultzezinak, banastaginak eta bestelako artesauak genituen, batez ere, hirigune-ertzeko kale horietan bizi zirenak. Triana izena, dena den, oso berria dela kontatzen digu ahozko tradizioak: 1920-30 inguruan asmatu ei zen, auzoko behi batek ihes egin ondoren, kalean korridak egin behar izan zituztenean, ilustraturen batek, Sevillan zegoelakoan, *honek Triana emuten dau* bota zuelako edo. Ordurarte, jakina, **Lekunbarri** deitzen zioten kaleari eta **Portalekua** Arantzazurako kaminorantz dagoen plazatorari. Gaur egun ere bizirik irauten dute izenok, nahiz eta, inongo ofizialtasunik ez dutelako akaso, gazteen artean oso erabiliak ez izan.

Tetuan, berriz, **Motxon kale** eta **Zubibarra** auzoa izan genuen denbora askoan. Eskolatorxoneko zubiarri ere Motxononeko zubia zeritzon eta beheragokoa zen Zubibarra. Alegitarrenaren ondoan dagoena, alegia. Ultzezin eta errementarien auzo horretan forjariak ere ezagutu ditugu XX. mende honetan. Ez dakigu garbi zergatik —errementari-forjarien aurpegi beltzengatik, agian—, baina Marruekos-eko ifarraldean aurkitzen den hiri ezagun horren izena ezarri zitzaion auzoari. Afrikako gerra amaigabea zela eta, joan zen mendeaz geroztik, hamaika soldadu gizarajok zalpaldu behar izan zuten hiria, bestalde. Dena den, forjariok bazuten esaera bitxi bat: orain *Xauen* (beste izen afrikar bat) denda dagoen lakuan *Kuba* deituriko taberan popularra egon zen duela zenbait urterarte; lana bukatuta gero, kuartillo bat edatera hara abiatzen zirenean, *Gu Tetuanetik Kubara itsasua pasau barik faten gaittuk* esaten ei zuten.

JERARDO ELORTZA

Galdu direnen artean aipagarriak lirake: Olabarrietako **San Kristobal** ermita (izen bereko santutxua baino goratxoago zegoen); Murgiko **San Andres** (Murgialdai baserri ingurutik Asentziotira eraman zen ermita mende honen lehen urteetan, baina ordurako izena aldatua zuen); Berezaoko **San Roman** (duela 30 bat urte erre zen Korriueko baserrian egon zen XVIII. mendera arte eta etxe horri **Urruman** deitzen zitzaion almitzina); Araotzeko **Santa Ana** (Errotabarri inguruan); auzo bereko **San Antoniozarra** (Gerneta inguruan edo); **San Martin** Arantzazuko Gezaltza auzunean; Gori-barko **San Bartolome** (Urrutxu eta Ugartondo baserrien bitartean); eta **San Juan** (Portuko zubi ondoan, Mendiko kaleaz bestaldetik).

Jatorrizko zeregina aldatu arren, izena mantendu dutenen artean honak hauek ditugu: Murgian **San Jurgi** (ermita galdu zen, baserria gelditzen da) eta **Santa Krutz** (badirudi ermita Berezaon partean zegoela, baina izen horretako errota Murgia auzo-ko dugu); **San Juan Artia** (sasoi bateko ermita, benta eta baserria Arabako kaitzadan; horma-sail batzuk zutik diraute oraindik); hirigune zaharrean, kalean alegia, **Santa Marina** (plaza geratu zaigu izen horrekin eta ermita zegoen tokian eskolak daude) eta **San Anton** (Aitzeko etxearen ondoan aurki-

Oñati letrarik letra (II)

SAN MIGEL da, dudarik gabe, Oñatiko santurik ezagunena eta ospetsuena. Seguru asko, aspalditxotik txantxiuarron zaindaria delako eta bere izena nahiz irudia gure herrian nonahi agertzen zaigulako. Santu berezi samarra, bestalde, goiaingerua izanik, hezur eta haragizkoa barik, espiritu hutsa baita. Edonola ere giza itxuran ezagutu dugu beti, hegodun baina soldadu jantzian, ezkutu, lantza edo ezpataz hornitua, deabru beltza hankapean duela.

Oñatiko parrokiari, San Migeli eskainia dagoenez, hainbat tokitan ikus dezakegu bere irudia: besteak beste, aldare nagusiaren erretaula barrokoaren erdi-erdian eta honen beheko aldean dauden baxuerliebeetan; Pietate-kapera dotoreko erretaula platereskoan, arimak pisatzeko balantza eta guzti; San Gregorioren aldare manieristaren beheko partean; organoburuan aurkitzen den koadrotzarrean pintatuta; eta atari nagusiko arku gaineko frontoian.

Orain eraberritzen diharduten **unibertsitateko erretaula** platereskoaren erdiko kalean ere San Migelen irudia agiri da toki nabarmenean. Halaber, **Araotzeko parrokia** San Migelen izenean jasotakoa da eta, jakina, aldaire nagusiko lekuri garrantzitsuenean jarrita dago zeruko aingeruen buruzagia. **Sandailiko kobazuloko ermitan** ere bazen santu honen irudia barroko bat. Eta, duela urte batzuk arte, Goribar auzoko **Urbietako santutxua** ere San Migelena zen. Gainera, Kale Zahararen goiko parteari **San Migel auzoa** deitzen zitzaion XIX. mendera arte-edo, eta horregatik ospatuko dituzte inguru horretan **San Migel Txikiak** maiatzaren 8an.

Alabaina San Migelen aurretik beste santu zaindari batzuk izan omen zituen Oñatik: **San Roke** eta **San Sebastian**. Eta hauen irudirik ere ez da falta gure herriko eliza eta ermitetan. Arestian aipatu ditugun hiru erretaula ederrenetan azaltzen dira: parrokiako aldare nagusian eta Pietate-kaperakoan nahiz unibertsitateko kaperakoan: San Sebastian beti ezkerrean eta San Roke, berriz, eskuman. **San Martin ermitan** eskuineko aldeara da San Rokerena eta, nola ez, aldamenen soldadu erromatarrek laguntzen dia. Abuztuaren 16an ohoratzen da San Roke ermita polit horretan. Eta hain santu oñatiarrak direnez gero, hirurak ateratzen dituzte bizkar gainean anderoek **Korrupti** eguneko prozesioan.

TELLERIA ugari egon izan da gure bailara honetan. Batetik, etxegintzak Oñatin zeukan inportantziarengatik, XVI. mendetik aurrera bereziki; eta bestetik, adreilu eta teilak egiteko behar diren buztin-lurrak ere leku askotan topa daitezkeelako Oñatiko udalerrian. Labeetarako suegurrik ere ez zen falta, beraz baldintza onak genituen hemen eraikuntzarako hain premiazkoak diren material horiek egoizteko.

Inaki Zumaldeki dioenez, XIX. mendera arte herri barruan zeuden telleria guztiak kontzejurenak ziren eta honek, igeltseriak bezala, errentan jartzen zituen hainbeste urterako. Ezagutzen den lehen alokaria 1501eko da. Garai hartan bost telleria zituen udalak: **Bidaniakoa**, Zañartuko Zelaakoa baino goratxoago, **Altzibar-koa** Lezesarrin, **Zubikoa** San Juan kale inguruan eta **Santa Kruz** eta **Bixaingokoa** Berezao-Murgia aldean.


Teila kontzejuko artxioban gordetzen zen ereduaren arabera moldatu beharra zegoen eta mila teilaren prezioa 500 marakoa izaten zen. 1501eko urte horretan hamar urterako alokatu zen Bidaniako telleria, errenta gisa urtean urrezko florin bat ordainduduz; beste telleriak bi urterako bakarrik alokatu zituzten. XVI. mendearen erdirako hiruro

teileria basterik ez ziren geratzen: **Bixain**, **Altzibar** eta **Buztinarietakoa**. Ez dakigu azken hau non koka zitekeen. XVIII. mendean erdi aldera ere herriko telleria bat aipatzen da Murgia auzoan, Bixain-Maala inguruan. Teilaginek labeetarako suegurra kontzejuk urtero herri-lurretan izendatzen zituzten basoetatik eskuratzen zuten.

1866an bazen oraindik herri-teileria bat, baina 1871tik aurrera pertsona partikularrek ekin zitoten teilak eta adreiluak fabrikatzeari: **Frantzisko Irazabalek** Larraña auzoan; **Gordotarrak** Santxolopetegin; **Domingo Arrazolak** Zubillagan; Migeleneko **Jose Urzelai** eta **Borja Galdosek** Garbaiko Margolan eta **Frantzisko Arrazolak** Olabarrietako Billar Txiki baserrian 1901a ezker. XX. mendean ezagutu ditugun telleriak enpresa pribatuak izan dira. Dena den, hauek batzuk sasoi bateko herri-teileriak zeuden parajetatik hurbil samar aurkitzen ziren. Gerra ostean, une batean, lau batera aritu ziren: **Billargoa**, Olabarrieta auzoan, baina Murgiatik oso hurrean; **Mugartzakoa**, Zañartun, orain Txintxurreta lantegia dagoen baino goraxeago; **Okumardingoa**, izen bereko baserriaren azpian, Buztinsoln, Zubikoatik gertu samar; eta auzo berean, San Juanen, baina beste aldera **Garalgatzakoa** ere jardun zuen lanean, Errotatxo ondoan, oso denbora laburrean izan arren. Billargoa izan da duela urte gutxi-ara lanean iraun duen azkena.



San Migel Oñatiko unibertsitateko kaperan. Arg.: Mikel Zabala




OÑATI LETRARIK LETRA

Tx

OMIN Agirre eta Badiola (1864-1920). *Hura zen idazlea hura!* esaten zuten gure aurreko belamaldikoez. Gure gaztaroan, berriz, ez zen hain gustoko nobelagilea; zenbait akats aurkitzen genion bere eleberrietan (*Añemendiko lorea*, *Kresala* eta *Garoa*): giro goxoegia, pertsonaia artifizial samarrak, erromantizismo gehiegi, apaizkutsu handitxoak eta auskalo zer ez! Eta egia esan, badute Agirreraren obrek horri-lako ajeirik.

Hala ere, arrapalada batean ezkututzen ari zaigun mundu baten lekukotasun bikaina ere eskaintzen digu Ondarruko abadeak. Duela ehun bat urte bizirik eta indartsu irauten zuten makina bat **ohitura** eta **lanbide** zeharo aldatu egin zaizkigu, erabat desagertu ez badira, gizartearen martxaren eraginez. Gaurko gazte eta umeez liburu, dokumental eta museotan bakarrik ikus dezaketen gauza asko Txominen lanetan aurki daitezke: artzantza, laborantza edo arrantzarekin zerikusia duten hainbat tresnen izenak edo lanen deskribapenak; basomutilen ibilerak, ikazkinen izerdiak, itsasgizonen nekeak; karobiak, meatokiak, harrobiak; erromeriak, bataioetako boluak, feriak; demak, jolasak, mitinak. Hauetariko batzuek iraun duten arren, sarritan aldakuntza galantak jasanda izan da. Autoreak, jakina, denei eransten die bere ikutu pertsonala, kasu askotan oraingo iritzi eta pentsamoldeetarako zaharkitua geratu dena. Alabaina, Agirrek utzitako ondare literarioari alderdi jakingarri ugari gelditzen zaiola esango nuke; puntuan aipatu direnak eta beste batzuk ere topa daitezke nobela horietan, garrantzitsuena ahaztu gabe, noski: hizkuntza aldetik daukan aberastasun ikaragarria, alegia.

Oñatiarrok, gainera, bere nobelarik famatuena hari hurragotik jarraitzeko aukera dugu. Badakizue *Garoa* izeneko eleberria Oñatiko **Uribarri** auzoan kokatu zigula Don Domingok. Baina Aloñapeko auzo hori ez ezik, Oñati eta inguruetako beste hainbat herri, auzo, paraje, baserri eta txoko agertzen dira liburu oparo horren orrialdeetan zehar. Hona hemen, adibide gisa, horietako batzuk: **Zubi-laga**, **Garibai**, **Zañartu**, **Urruxola**, **Araotz**, eta **Olabarrieta** auzoak; **Artzubi**, **Goienetxe**, **Erostegi**, **Azkarraga**, **Txopekoa**, **Aingerukoa**, **Baltzategi** eta **Urtiaga** baserriak; hiriguneko kale, jaztetxe,



Txomin Agirre.


eliza, komentu, denda eta tabernak; eta, nola ez, Joanes artzainarentzat hain kuttunak ziren parajeak: **Arantzazu**, **Aloña**, **Aizkorri** eta **Urbia**. Hona, Urbia, sekula igo gabea omen zen idazlea; **L. Villasantek** dioskunez, Agirrek, Zumaiako monjen kapeilau zegoelarik, **Eustakia Urreta** emakume oñatiarra ezagutu omen zuen eta honek eskuratuko zizkion ziur asko gure herriari buruzko xehetasunak. Bigarren eskuko informazioa izateko, eta akats batzuk gorabehera, mende honen hasierako Oñatiren deskribapen zehatz eta itxuroso samarra egiten digu *Garoa* nobelaren egileak.

U

UNAMUNO bai. **Miguel Unamuno** eta **Jugo** (1864-1936) idazle bilbotarra heldu zen **Urbia** eta **Aizkorri** puntaraino ere bai.

Por tierras de Portugal y España izeneko liburuan kontatzen digu 1909an Oñati alderuntz egin zuen txangoa. Salamancako erretore ahaltsua, literato eta pentsalari ospetsua, kazetari eta polemista sutua gizon ezaguna genuen ordurako.

Txomin Agirreraren kintoa izan arren, ez zuen gure Don Migelek ondarrutarren izaera otsana nortasun korapilotsu eta hiperkritikoa baizik. Beraz, Unamunok Oñati, Arantzazu eta Urbiaz eskaintzen digun ikuspegia, garai beretsukoa bada ere, Txominerarekin konparatuz, oso bestelakoa da. Salamancako irakaslea hiritarra dugu, hots, hiri handi samarretan hazi, hezi eta bizi izandakoa;




Miguel Unamuno

bere iritzi. Oñati lako herriek anima goibel eta hezea daukate, ez dute iadanik unibertsitate bat izateko aukerarik, gerra karlistetako hondakin atzerakoiak gordetzen dituzten hilobi bihurtu dira. Arantzazuko ostatuan fraideak bazkariarengatik borondatea eskatzen dionean, jokabide hau komentuetako maltzurkeriatzat hartzen du. Urbia iritsi ondoren —ermita, fonda eta lizarrik gabeko Urbia—, txaboletan gelditzen dira gaua pasatzera, **Arbelarren** seguraski, eta azpimarratu egiten du hango artzainek gaztekeraz ia tutik ere ez ulertzea; euskarak bere azken arnasa goimendietan bilatu duela iruditzen zaio. Zer pentsatuko ote luke gure filosofoak euskara gaur egun, bere eragozpen, zailtasun eta guzti, komunikabide eta unibertsitateetan aurrerabidean doala ikusiko balu?

Aizkorriko igoaldi hau era bizian kontatua dago, bestalde; ez zaio pasarte kuriosorik falta: besteak beste, Oñatiko neskei buruzkoa, unibertsitateko estudianteez diharduena, parrokiako klaustroa kaiolan sartutako itsaso-zatia dela dioena, Aizkorriko ton-toretik ikusten den bista paregabea deskribatzen duena, Aizkorritik bertatik erregearen trena euren azpitik pasatzen ikusten dueneko, etab. Baina gehien harritu behin duena zera izan zen: artikulu honetan behin baino gehiagotan Unamuno liberalak **Zumalakarregi** karlistaren azerikeriari ematen dion inportantzia eta egiten dion omenaldia. Lan-txo hau eta hurrengo —Aizkorritik **Aralar-gro San Migelerainoko** ibilaldia— interesgarriak dira benetan. Dagoneneko ezagutzen ez badituzue, irakurtzea gomendatzen dizuet.

JERARDO ELORTZA



TXOKOLATEA aipatu, eta askori Oñati etortzen zaio gogora bat-batean. Izan ere, gaur egun gure herrian txokolategintzan diharduen enpresa bakarra geratu arren, makinatxo bat lantegi, handi eta txiki, aritu da hemen Ameriketatik heldu zitzaigun janari gozo hori ekoizten. Horregatik, alboko herrietan oñatiarrok txantxikuak ez ezik, **txokolateroak** ere bagara.

Gure haurtzaroan, 1950 aldera, **Guereca** eta **Onena** markako txokolateak egiten zituzten bi tailer txikitik Aita Madina kalean, orduan Ikasola / Colegio kalea deituan; **Loyola** izenekoa Goribar auzoko arboledan aurkitzen zen gerra ezkerreko eta fabrika handi samarra genuen; **Orbea** eta **Zahor** Kale Barriaren erdi inguruan kokatzen ziren, elkarrengandik hurrean; **Maiztegui** familiarenak, berriz, Bidaurretako komentua eta Olako dorretxearen artean ziharduen. Horietatik Guereca eta Orbea izango ziren zaharrenak eta Zahor berrienak.

Denbora gutxiren buruan denak ezkutatatu ziren, Zahor izan ezik; eta hau Kale Barritik Lezesarri auzoko Altzibar-Azkoagain inguruetara aldatu zuten 1960ko hamarkadan. Lehen esan dugunez, beratu da orain lanean jarraitzen duen bakarra, Ulma kooperatibaren atzetik, Oñatiko enpresarik handienetakoa izanik.

Baina hemengo hainbat gozotegi, konfiteria eta dendatan ere egin izan da txokolatea, artisau eran eta kopuru txikietan bada ere. **Anton Azpiazu** adiskideak ia burututa daukan Oñatiko txokolategintzari buruzko ikerketan hiru mendetako txokolategile oñatiarren berri ugari ematen digu: XVIII.ean zortzi bat maisu-txokolatero aritu ziren gure artean. Lehenengoa, **Manuel Umerez**, 1753ra orduko agertzen zaigu, eta ondoren **Teresa Ugalde**, **Santiago Arrikruz**, **Joseph Aragón** eta beste batzuk.

Hurrengo gizaldian, XIX.enean, guztiz indartuko da Oñatin gozogile eta dendarien txokolate-produkzio artisaua eta, kasu batzutan, XX. mendeko zenbait enpresen oinarriak ipiniko dira. Ia herri-gune klasiko guztian, baina batez ere Kale Zahar, Kale Barri eta Atzeko kalean, hogeitik gora txokolategile txikiak jardun zuten urte haietan, sarritan negozioa belaunaldi batetik bestera pasatuz. Ordukoak ditugu, besteak beste, **Ignazio Gereka** eta **Gabina Baztarrika** senar-emazteak, **Martin Orbea**, **Frantzisko** eta **Lukas Leturia** aita-semeak, **Jose Mari** eta **Migel Anton Galdos** bezalaxe, **Domingo Milikua**, **Jose Mari Arrazola Konfitteruena** eta 1900 alderantz **Felix Garaikoetxea** eta **Natalio Maiztegui**.

Orain arte esandakoari beste mila xehetasun erantsi behar-ko genioke, Oñatin txokolateak izan duen garrantzia taxuz eta egoki azaldu ahal izateko. Adibidez, kontuan hartu behar-ko da **Santa Ana** eta **Bidaurretako** mojek, etxerako nahiz kanpoko konpromisoetarako, txokolate oso gozoa egiten zutela, eta **Unibertsitateko** irakasle zein ikasleak, XVII. mendaren amaieratik gutxienez, txokolatezale finak genituela. Dena den, Anton Azpiazuren lana kaleratzen denean, orain arte ezezagunak ziren gauza asko jakiteko modua izango dugu.

USAKO ezagutzen ez duen oñatiarrik nekez topa daiteke. **Zañartu** eta **Garagalza** auzoen arteko mugan, **Artixa** errekan dauden presa eta inguruak ospetsu bihurtu dira azken urteotan, presapea eta aldameneko lekuak zabaldu eta ego-kitu direnetik bereziki. Errekan igeri egiteko lekuri estimatuen bilakatu da Oñatin eta eskualde guztian uda partean. Izan ere, makina bat arrasatear, leiztar eta bergarar hurbiltzen zaigun bainu-leku horretara beroa agintzen hasten den bezain laster. Aurten batez ere.

Egia esan, lehen ere **igerileku** kuttuna genuen Usako. Igerian ondo zekitenak presapean aritzen ziren batera eta bestera edota giltzati salto eginez; ikasten zihardutenak, berriz, presa gainean edo beheragoko potintxo eta pontzuetan saiatzen ziren. Kostaldeko hondartzetara joaterik ez zutenentzat

—eta garai batean gehienok ginen holakoak— jolas-leku atsegina zen erreka-bazter hori. Zenbat karrera, jauzi, murgil-igeri, jolas, trago eta susto! Tarte-ka-marteka, itolakoren bat ere bai. Uretatik kanpora karta-jokoak, zigarroak, sagar-lapurretak eta beste abilezia batzuk.

Baina Usako ez da parajearen ize-

na bakarrik, baizik eta han beheratxoago dagoen garai bateko baserriarena ere bai. Hobeto esanda, **baserriarena** eta **errotarena**. Honek, urte askoan lanean jardun ondoren, Oñatiko errota gehientsuenek legez, 1960ko hamarkada aldera utzi zion ehotzeari.

Isuri dezentea dauka ia beti Artixa erreka, Arantzazu, Araba-mendi, Deguriako batzuk eta Araotz inguruko urak bereganatzen baititu. Hainbat makinatxeren bidez majo aprobetxatu zuten luzaroan uraren indarra **Cerrajera-ko ur-saltoek** eta gaur egun **Oñatiko ur-jauziek**. Aurretik, ordea, menderik mende aritu zen errota mordoska, **dranga-dranga**, erreka eder horren ertzean. Torreazotik Jaturaberaino bakarrik sei bat errotek lan egin zuten azken bi mendeetan: behetik gora abiatuta, **San Pedro**, **Usako**, **Zuazola**, **Lamiategi**, **Urruxola** eta **Jaturaben** kokatzen ziren. Gehienen arrastoak ikus daitezke oraindik. Besteren bat ba omen zen antzina Albarritza inguruan-edo.

Eta bukatzeko, Usakorekin zerikusia duen oso bestelako pasadizo bitxi bat kontatuko dizuet. Oraindik bizi den euskal idazle ospetsu batek, beste ezizen batzuen artean, **Usako** ere erabili zuen inoiz bere izkribuak sinatzeko. Jatorriz oñatiarra dugu eta Zañartuko etxe horretakoak diren Enparantzatarren eta Felisatxoren senide. Sasoi hartan, 1965 aurrera batik bat, eztabaida minoritario baina gogor samarrak sortu ziren gure artean sozialismoaren inguruan. Aipaturiko idazleak sozialistatzat zuen bere burua, baina ez marxistatzat. Bere arerio politiko batzuek ezizen horren atzean nor ezkutatzen zen jakin zutenean, yankizaletzat hartu zuten besterik gabe, leku-izen baten ordeztu **USAko** gisa ulertu baitzuten sinadura. Ez ziren oñatiarrak izango, jakina. Ea asmatzen duzuen nor den ezkutuko pertsonaia!



Damian Lizaur arkitektoak 1929an Natalio Maiztegiarentzat egindako txokolate-fabrika

JERARDO ELORTZA



OÑATI LETRARIK LETRA

U A B E -
x u a b e
u r t e n
x u a n
J o x e k
R o x e n -
d o n e t i k .




Begixak bixi-

bixi, hanka bixak motel xamar, etxakixan nora abixau: Kale barrixan behera ala gora. Harutzatxuago Klementx, Xakeo eta Diortxo ikusi txuan eta alkarrekin Luixeneraiño fatia pentsau xuain. Patxik perretxiku batzuk be batu zitutuala ta, aspaldixan asmauta eukain afarixa egittera animau zittuan.

Baiña bidetan, baxoerdi han baxoerdi hemen, txikiteo barrixari ekin txain: Txarriduma, Etxeberria, Txurruka, Txaketa, danairi bixittia egin bihar: Txokora be igo xuain eta azkenian Joxek Xolonpoman sartzeia gura izan xuan. Gehixenok ezetzian xagozan, berandutxo zala eta martxa haretan afarixori hotzittuko xatela. Joxeri, ostera, hasarratu xakuan eta serixo-serixo eranitzun xostian bestioiri: *Neri etxostak inortxok agindduko zein lekutan sartu bihar doten eta enaixok zuetariko inork horretara obligauko*. Egixa esateko, gure Joxek etxok aixkomente holako kasketaldirik harrapaitten eta, bestioik hain temoso ikusi ebeñian, egogixena haren burugogorkerixiari jarraiketia zala erabagi xuain.

Sartu zittuan, ba, Xolonpoman; baltza, zurixa, gorrixa eta txakoliña eskatu eta, maixan jasartera zixoiatzela, Maurixio hurreteratu xatien eta erdi txan txetan hauxe bota txan Joxeri: *Zer xabillagu, Joxe? zaragixa hustu biharrian? Gure laguna apurtxo bat pasauta xaguan, baiña ukabil bixetako inddarra osorik xakuan oraindiok; eta txotxolo negargarixori! damutuko xak behin baiño gehixagotan esan doken lelokerixia!*



erantzunaz, betondo bixak anpolaixa baiño gorrixago ipiñi txan. Jentia konturatu orduko, tabernako armaixua, maixak eta aulkixak hegaazka hasi zittuan eta hango lekaixo eta txili-xuak laister uxatu xuain Xolonponeko bezerixia. Horixe izan zuan, ba, hainbeste komerixa eta komentarixo atara dauen Joxeren historixiori.

A! Ixixa ahaztu xatak... egun haretako afarixa izorrau arren, San Fermin bixamonian haundixagua egitteko asmua xakuai; Txominek xiharduk izenak batzen eta ixa danok alkartuko gariela pentsaitten xuagu. Bueno, nik nahikua eskribidu xuat eta orain hiri tokaitten xak. Arixo!

U B I L L A G A



a i p a t u
o r d u k o ,
o l a k ,
e r r o t a k ,
f a n d e r i -
x i a , l a n -
t e g i a k , t a i -
l e r r a k d a t o z -
k i g u b u r u r a . G o r i b a r r e k i n
b a t e r a g u r e i n d u s t r i a - l e k u r i k
z a b a l e n a i z a n d u g u a s p a l d i d a -
n i k Z u b i l l a g a ; X V . m e n d e a z
g e r o z t i k , g u t x i e n e z . B e r a z ,
b o s t e h u n u r t e t a n z e h a r i a e t e -
n i k g a b e i n d u s t r i a - g u n e
g a r r a n t z i t s u a k o k a t u d a p a r a j e
h o r r e t a n . E r d i A r o k o l e h e n e n -
g o u r - o l a k m a r t x a n j a r r i z i r e -

netik, hain zuzen.

Oñatiko Kondearenak ziren Zubillagako **ola** biak. Elkarren ondoan zeuden lantegi hauetan meatik, mineraletik ateratako barrak ezezik, burdinazko tresna eta bestelako elementu asko ere produzitzen zen. Esate baterako, Gebaratarrek Madrilen jasoarazi zuten jauregiko balkoiak (1634), edo Oñatiko San Migel parrokiako Errosarioko kaperan ipini zen erraja ederra (1693) ola hauetan forjatu zituzten. Hurrengo mendearen erdi aldera ola handian 1.500 kintal burdina eta txikian 400 bat gauzatzen omen ziren. Tresnei dagokionez, berriz, garai berean ardatzak, prentsak, xafiak, palak, pikotxak, aitzurrak, goldeak, mailuak, ingudeak (*jungurak*) eta beste hainbat erreminta ateratzen zen ola horietatik.

Auzoak olen inguruan jardun zuela zenbait etxeren izenek ere erakusten digute: **Urtzalleko** bietan fundidoreak, burdina urtzen zutenak biziko ziren; **Txipitxalle** izenekoa minerala apurtu edo txipittu egiten zuena; oraingo Lazkanokuak **Aguadokua** izena zeukan XVIII. mendean eta baliteke honek ere olarekin zerikusiren bat izatea; hauetaz gain hor ditugu **Ola-etxebarri**, **Olaburu**, **Errementarikua** eta inguruetan **Konde-txara**

basoa, sasoi batean sutegieta-rako ikatza egiten zuten tokietariko bat, seguru asko.

Osinurdirin aldeko **fanderia**, berriz, ordurako ola munduan arituak eta ikasiak ziren Gomendiotarrek eraiki zuten XVIII. mendearen azken alde-runtz. Lantegi modernoago hauetan, oraindik uraren indarrez soilik baliaturik, burdina, kobrea eta beste metal batzuk laminatzen ziren; gurpil hidrauliko handi eta txiki batzuek zilindro eta ebakigailu batzuei eragiten zien, hartara metalak arraildu, moztu, zabaldu, luzatu eta mehetu ahal izateko.

Olek nahiz fanderiak XIX. mendean birmoldaketa sakona izan zuten eta jabe berri askoren eskuetatik pasatu ondoren, oraindik ere burdingintzan dihardute neurri handi batean Zubillaga auzoko fabrika hauek. Azken ehun urteotako aldaketak zehatz adierazteak luzetxo joko liguke. Gogoratu bakarrik, orain dela hamar bat urte Industrialde berria jaso zenean, guztion zabarkeriaren-gatik 500 urte pasa iraun zuten olen aztarna oso inportanteak betiko galdu ganitueta; eta olekin batera XIX. mendearen hondarrean eraikitako langile-etxeak ere bai. Batzuk nahiz besteak oso leku gutxitan geratzen zaizkigun eraikuntzak. Azkenengo arrastoak, behinik behin, (**Madalenako presa** eta **malatu-zatiak**) zain ditzagun, hauek ere egoera oso larrian daude eta.

JERARDO ELORTZA

Urtebete pasatu da alfabeto oñatiar honi ekin genionetik, eta ia konturatu barik Z-raino iritsi gara. Ilbilbide letradun hau jarraitzeko kuriosidadea eta pazientzia izan duzuenoi mila esker eta hurrengora arte!

XANTIK eta Ximonek etxakixain noiz arraixo pixauko eben Xerapiok San Juan Artixako hegijan harrapotako erbixa. Xanti zuan kazarixa, Ximonek gertatu bihar xuan afarixa eta Xerapiok azala xakuan lodixa eta, iñork abixau barik, han agertu xatian, ixa beratzixak ziranian, soziedade barrixan. Mahaixan jarteko, aitzakixaren bat asmaittia komeni xakuan Xerapiori, eta han hasi zuan zarata eta txilixoka animalixa abonaiten: haxe zala benetako erbixa, gurixa, haundixa, ikaragarrixa; merittu izugarrixa eukala ehiztarixak; herrixa enteraitteko, merizi ebela albistia periodikuan eta irratixan zabalketia; berak pixauko ebela pieziori Bittorixan erosittako pixuan eta atarako otzala egundoko fotografixia.

Fan zuan, ba, Xerapio etxera erbi-xori pixaittera, baiña bidetan Xegundueneko Xixilerekin trikix egin xuan eta han ekin txain eten bariko berba-jarixuari, goixak eta behiak, gaiñak eta azpixak astinketan eta ixoten. Jardunaren iturrixa agortu xatenerako, beratzi t'erdixak zittuan. Haren larrixa ba! Etxia urrintxo xakuan eta eurixa hasi zuan gaiñera. Ezkiñako kantoian Xabiñoren panaderixia xaguan eta, ogixa erosi alde, bertan sartu eta erbixa pixau xuan antigualeko balantzan. Argazkixa, berriz, hantxe suertau zan Kaxintok atara txan abixada batian bere **polaroid** kaxkarrarekin.

Bixen bittartian bestioek txorixa kaixolan baiño nerbiosuago xagozan: —**Nora demontre alde egin xoskuk gaxapo horrek? Zubillagako mataderixara be fateko astixa baxakuan, baiña hori ganorabaia eta nagixa jaixo zuan bai, eta honezkeru hala biharko xok.** Han agertu zuan halako batian, bitsa eta izardi-xa darixola, erbixa esku batian eta ogixak eta fotografixia bestian. —**Zer xabillagu, baiña?** bota txan Xantik—**Koixkarreraino fan haiz ala, erbixori pixaittera?** Gixajo-arpegixa ifiñi xuan eta oreixa eta ofiaz-tarrixak piittintxo bat xuabetu zittuan. —**Bueno, ta zenbat kilo xakok, ba?** preguntau otzanian, barregarrixa izan zuan haren erantzuna: —**Hi, ba, hainbeste gorabehera eta zorabixorekin abaztu egin xatak apuntaittia, baiña ixa dozenerdi eukiko xok.** Etxain sinistu, baiña tripetako zorrixak jan-eske xagozan eta berihela sartu xuain erbixori labian.

Hamabixak izango zittuan mahaixan jarri zirerako. Eta egixa esateko, gosiak erremixau xuan sukaldarixaren prisia. Hain txarra be etxaguan, baiña auke-ran gordintxu. Xerapio gaxixa eguela esaten atrebidu zanian, derrepentian ixildu xuain bestiek: —**Honek zer xakik, ba? Ahixa eta morokilla besterik etxok jan-eta!** Dana dala, armonixia ederra nagusittu zuan azkenera orduko, eta ordubixak aldera han xiharduain oraindiok kantuan: **Baxatozak, baxatozak...!**

ZARATEKUA esaten diote oraindik oñatiar heldu batzuek. **Aitzekua** izenez ere ezagutu genuen gerraostean, Agirrezabaldarrek urte askoan han janari-denda bat eduki zutelako.

Gaur egun, berriz, **Ikas Hiru** edo **Aker** moduan ere identifikatzen da etxe hori, orain horrela deitzen diren alkaldia bat eta taberna bat etxe horretan kokatzen baitira. Bien bitartean beste zenbait denda, aurrezki kutxa eta ardan-degi egon izan da Zaratekoaren beheko aldean.

Erdi Aroz gero, herriguneko etxeei dagokienez, printzipalenetakoa izan da San Antone kale, Zumeltzegirako igorera eta Bakardadeko Ama kalearen artean, **U** zabal baten itxura duela, hedatzen den eraikuntza bikain hau. Orain hiru sarrera eta behebarru desberdin eduki arren, sasoi batean herriko handiki-familia baten egoitza bakarra izan genuen: XVI-XVII. mendetan **Bergantzotarrak** eta XVIII-XIX.etan **Zaratearrak**, gutxi gorabehera. Azkenera orduko, bi deiturua baina sendi bakarra, Zaratear bat Bergantzotar batekin ezkondu zena eta.

XX. mendera arte herriko alkateak jauntxoak izaten ziren txanda-ka, urtero alkate berria izendatzen zelarik. Bergantzo eta Zarate abizenak sarritan irakur ditzaiegu Oñati alkateen zerrendan. Edononola ere, marka guztiak **Juan Simon Ortiz de Zatek** hautsi zituen: bederatzia aldiz izan zen alkate 1732 eta

1767 bitartean. Eta, besteak beste, ondorengo baserri hauen ugazaba genuen Oñatiko hainbat auzotan: **Altzibar azpikua, Amiño, Artxuixa, Dolaetxe, Gaztelondo, Gori-bar, Liñantzibar, Mendiko azpikua** eta **Berezaoko Zela-barren**.

Azpimarratzekoa da, bestalde, Bergantzo nahiz Zarate Arabatik etorritako deiturak ditugula. Gebarako jaunak arabarrak izanik, normalizat jo behar dugu haien inguruan eta arrimuan beste familia batzuk ere handik paraje hauetara etortzea. Aipatutakoek gain beste izen arabar batzuek ere luzaroan irauñ dute hemen: **Tobalina, Okaritz, Ramirez de la Piscina**, etab. Baina alderantzikoa ere gertatu zen, hots, oñatiar leinu garrantzitsuak Arabako lurretan finkatzea: **Lazarraga, Araotz, NARRIA** eta beste batzuk. Hor dugu beste aztergaitxo bat.

Ikastetxe ere izan zen Zaratekua orain baino lehen, XX. mendearen hasieran moja beneditarrak Frantziatik Oñati-ira iritsi zirenean. Hogeita bost urtean eduki zuten neskatilen kolegioa bertan, 1928an Lezesarriko Altzibar azpikora aldatu ziren arte. Orduan txantxikuarrek **Zarateko mojak** deitzen zieten. Eta amaitzeko, arkitekturari buruzko zertzelada pare bat. Garai desberdinetako aztarna aipagarriak gordezten ditu etxe eder honek, baina bi xehetasun bakarrik nabarmenduko ditut: azken eraberritzean berreskuratutako **leihotxo gotikoa** eta XVI. mendeko **San Antone** behe-erliebe polita.



Eraberritu ondoren, Zaratekoan jarri duten San Antone irudia



Oñati letrarik letra (II)

Eskerrak eman beharrean

Amaitu da 2003. urtean zehar aldizkari honetan hilero argitaratu den alfabeto oñatiarra ere. **Oñati letrarik letra (II)** jarri diot izenburutzat, lehenengoa duela hamar urte atera nuelako, hura ere KONTZEJUPETIKen. Hirugarrenerako materiala batzen dihardut, baina momentuz ez da kaleratuko.

Halako lan baterako behar-beharrezkoa izaten da beste batzuen laguntasuna. Niri ere ezagun eta adiskideek eskuratu, osatu edo konfirmatu dizkidate letra txantxikuarrok moldatzeko sarritan falta nituen datu eta argazkiak, edota presa antzean idatzitako nire testuak, inprentara bidali aurretik, irakurri eta zuzentzeko pazientzia izan dute.

Aldez edo moldez laguntzaile izan zaituztedan guztioi eskerrak ematea besterik ez zait geratzen eta zuen izenak, hauek ere alfabeto-ordenan, gogoratzea: **Pablo Anduaga, Iñigo Arregi, Migel Angel Arzuaga, Jabier Arriaran, Anton Azpiazu, Dolores Egaña, Loli Erviti, Jabier Etxeberria, Jexux Etxezarreta, Bitoriano Gandiaga, Josu Garai, Agustin Goenaga, Kaximira Irarreta, Juantxo Madariaga, Roberto Maiztegi, Imanol Murua, Mikel Saiz, Xabier Ugarte, Mireia Uribetxeberría, Xabier Zelaia, Sabino Zuazabertia eta Iñaki Zumalde.** Baten baten izena ahaztu baldin bazait, barka nazala, mesedez.


Eta eskerrak, jakina, hilero Oñatiri buruzko albiste, iruzkin, ohar eta azterketaxo hauek irakurtzeko zaletasuna agertu duzuenoi ere. Hurrengora arte!

Jerardo Elortza



GAK
Garbiketa
Administrazioa
eta konponketak

653 70 45 47
Oñati



**KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK**


Meatzerreka, 5 bis.
Tfnoa: 77 09 92
ARRASATE

San Lorenzo, 39
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI

BATVAK, S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa • Industrialdea • 18 Posta Kutxatila
Tfnoa: 78 11 15 Telefaxa: 78 32 63 • OÑATI (Gipuzkoa)




MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

OÑATI
Tfnoa.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tfnoa.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABAETA
Tfnoa.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 21 19

HARITZA



- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoa
- Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 96